



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

txostena



EHUko ESTATUTUEN ERREFORMA

Ikasle Kontseilua



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

AURKIBIDEA




**1.- OHAR
OROKORRAK**



2.- ATARIKO TITULUA
Xedapen orokorrak



3.- I. TITULUA
EHUko komunitatea



4.- II. TITULUA
Unibertsitatearen jarduna




5.- III. TITULUA
Hizkuntzak



6.- IV. TITULUA
EHUren egitura



7.- VI. TITULUA
EHUren gobernua eta
ordezkaritza



8.- VIII. TITULUA
Estatutuak onartu eta
aldatzea



9. XEDAPENAK
Gehigarriak eta iragankorrak



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

SARRERA

Txosten hau EHuko Idazkari Nagusiak eskatuta igorri da, Estatutu berriak idazteko prozesuaren esparruan, 2/2023 Lege Organikoak, martxoaren 2koa, Unibertsitate Sistemarena, (USLO) ezarritakoa betez. Arau horrek, bere Lehenengo Xedapen Iragankorraren lehen atalean, Estatuko unibertsitate publiko guztiei zuzendutako agindu bat jasotzen du: estatutu berri batzuk onar ditzaten eta haien gobernu-organoen osaera lege organiko horretan xedatutakora egokitu dezaten.

USLOk agindu hori gauzatzeko epe bat ematen du, 2026ko apirilaren 12an amaituko dena.

Testuinguru horretan, joan den maiatzean, Idazkari Nagusiak Estatutuen zirriborroa idazteko ibilbide-orri bat eta irizpide batzuk aurkeztu zituen Gobernu Kontseiluaren bileran. Bertan, testua egiteko prozesurako jarduketak definitzen ziren, eta testuaren prestakuntza teknikoa partaidetza- eta kontraste-mekanismoekin konbinatzea aurreikusi zen. Mekanismo horien artean, berariaz ageri zen, Unibertsitate-Komunitatearen partaidetza-izapidearen aldi berean, EHuko Ikasle Kontseiluari zein atal sindikalei iritzia idatziz eskatzea, horretarako ezarritako epearen barruan.

Horri dagokionez, 2025eko abenduaren 11n Bizkaia Aretoan Idazkari Nagusiarekin izandako bileraren ondoren, EHuko Ikasle Kontseiluak bere lan-prozesu propioa abiarazi zuen txosten-eskaerari erantzuteko, kontsultan jarritako zirriborroari



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

Inguruan ikasleok ditugun behar eta interesen balorazio eraikitzailea, aldarrikatzailea eta adierazgarria helarazteko helburuarekin.

Txosten honek, beraz, bi helburu ditu: alde batetik, Estatutuen zirriborroaren kalitatea eta koherentzia hobetzen laguntzea, bereziki, unibertsitate-bizitzan, partaidetzan eta EHUko ikasleon eskubideengan eragin zuzena duten gaietan. Bestalde, txosten honen bidez ikasleon partaidetza bideratu nahi dugu gure Unibertsitatearentzat garrantzitsua den une honetan, haren egitura, printzipioak eta funtzionamendua finkatzen dituen araua baita.

EHUko Ikasle Kontseilua gure unibertsitateko ikasleon kide anitzeko ordezkaritza organo-gorena da, eta, hala, kolektibo honi eragiten dizkien gai orokorretan jarduten du solaskide gisa, Estatutu zein lege bidez aitortuta. Posizio horretatik, ikasleon parte-hartzea bideratzen du, gobernu-organoen aurrean proposamenak bultzatzen ditu, ikasleon eskubide eta betebeharren bermea zaintzen du, eta ikasle-elkarteen jarduna, parte-hartze aktiboa eta unibertsitate-bizitza sustatzen ditu.

Bere egiturak eta funtzionamenduak ordezkaritza demokratiko, koordinatu eta anitza artikulatzeko beharrari erantzuten diote, EHUko errealitate ezberdinekin lotuta. Hori bere osaeraren bidez lortzen du: EHUko Ikasle Kontseilua Campus, Fakultate, Eskola, Egoitza eta ikastegietako Ataletako ordezkariak osatzen dute. Horrela, elkarriketa iraunkorra bermatzen da, ikuspegi eta errealitate desberdinak partekatzea ahalbidetuz.

Horren ondorioz, EHUko Ikasle Kontseilua partaidetza demokratikorako tresna bat da, eta funtsezko elementu bat da ikasleok unibertsitatea diseinatzeko prozesuetan, hala nola, Estatutu berrien onarpena, modu antolatuan esku hartu ahal izateko.

Ikasle Kontseiluaren erantzuna ahalik eta parte-hartzaileena, gardenena eta ordezkatzaileena izan zedin, EHUko Ikasle Kontseiluak 2025eko abenduaren 19ko Ohiko Osoko Bilkuran eztabaida-saio ireki bat egin zuen, Estatutu-proposamenaren zirriborroari buruzko iritziak eta ekarpenak jasotzeko, eta ikasleon ikuspegitik lan- eta proposamen-ildo nagusiak antolatu ahal izateko.

Bilkura horretan bertan, txosten-proposamen bat egiteaz arduratuko zen lantalde bat sortzea erabaki zen, dokumentua egiteko Osoko Bilkuran izandako eztabaidan zehar jasotako ideietatik eta ekarpenetatik abiatuko zena, eta, gainera, ondorengo lanaren ondoriozko hobekuntzak sartu ahal izango zituen.

Lantaldea eratzeko erabakiak haren osaera eta idazketa-epea zehaztu zituen, ezarritako egutegiaren barruan hura onartuko zuen Osoko Bilkurara testu koherente batekin iritsi ahal izateko.

Ildo horretan, txostena egiteko, kontsultapean jarritako zirriborroan ikasleongan eragin zuzenena duten alderdiak identifikatu dira, eta horiei buruz oharrak eta proposamenak formulatu dira, argitasun eta segurtasun juridiko handiagoa, eskubideen berme eraginkorragoa, ikasleon partaidetza eta Campus anitzeko unibertsitate baten antolaketa- eta ordezkaritza-errealitatearekiko koherentzia bilatuz.



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

Azkenik, landutako testua EHUko Ikasle Kontseiluaren Osoko Bilkurak 2025eko abenduaren 28an onartu zuen, eta, horrenbestez, ikasleon ordezkaritzarako kide anitzeko organo gorenaren jarrera instituzional gisa formalki ezarri zen.

Estatutuen zirriborroaren egiturari jarraituz antolatu da txostena, irakurketa errazagoa izan dadin eta izapidetzearen arduradunek hobekuntza-proposamenak errazago identifika ditzaten. Bloke bakoitza gogoeta orokor batekin hasi dugu, eta, hala dagokionean, idazketa alternatiborako proposamenak ere jaso ditugu, ikasleen parte-hartzeari eragiten dioten gaiei lehentasuna emanez, hala nola, ordezkaritza-organoen aintzatespenari, ikasleriaren eskubideen araubide eta bermeei eta EHUren antolaketa-egiturari.

Azken batean, dokumentu honen bitartez, ikasleon ordezkaritza demokratiko gisa, ekarpen eraikitzailea egin nahi izan dugu EHUko Ikasle Kontseilutik, EHUren Estatutu berriak egiteko prozesuan unibertsitate-komunitatearen benetako beharrak eta, bereziki, ikasleonak kontuan har daitezen.





IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES





1.- OHAR OROKORRAK

Ikasle kolektiboaren definizio egokiari buruz

Gure ustez, gaztelerazko testu osoan zehar ikasle kolektiboari erreferentzia egiteko modurik egokiena “estudiantado” terminoa erabiltzea da. Termino kolektibo argia eta zehatza da; generoaren arabera bikoizketak saihesteko aukera ematen duena, eta, gainera, binarismoan sartzen ez diren errealitateak ez dituen kanpoan uzten. Irtenbide hori ohikoak diren beste formula batzuen parekoa da, hala nola “profesorado” edo “personal”, izan ere, kolektibo bat izendatzeko balio dute, formulazio bikoiztuetara jo beharrik gabe.

Irizpide horren salbuespen bakarra ikasleen ordezkaritza-organoaren izen ofiziala izan behar da: “Consejo de Estudiantes”. Kasu honetan, ez da proposatzen “Consejo del Estudiantado” edo antzeko formulez ordezkatzeari; izan ere, organoaren berezko izendapena da, eta komenigarria da mantentzea.

Honi lotuta, gainera, zehaztapen garrantzitsu bat egin nahi dugu euskarazko bertsioari dagokionez. Zirriborroan “Ikasleen Kontseilua” erabiltzen da, baina organo honentzat tradizionalki erabili den izena “Ikasle Kontseilua” izan da. Erabilera finkatuarekin eta organoaren beraren identitatearekin koherentzia bermatzeko, testu osoan modu sistematikoan “Ikasleen Kontseilua” forma “Ikasle Kontseilua” formagatik ordezkatzeari proposatzen dugu.

Azkenik, gaztelaniazko bertsioan, modu lehenetsian “estudiantes” edo “estudiantado” erabiltzea, eta “alumnado” edo “alumnas y alumnos” bezalako terminoak saihestea proposatzen dugu. Egungo zirriborroan, izan ere, ez da ageri

“alumna/o” ezta “alumnado” ere; hala ere, aurreko testuetan eta EHUko beste araudi batzuetan erabili izan dira.

Gure ikuspegitik, “estudiante” hitzak hobeto islatzen du unibertsitateko errealitatea. Izan ere, pertsona ez da soilik irakaskuntzaren hartzaile gisa definitzen, baizik eta bizitza akademikoaren zati aktibo gisa, parte-hartzearekin, eskubideekin, erantzukizunak eta unibertsitateari ekarpenak egiteko gaitasunak dituen. Aldiz, “alumna” eta “alumnado” terminoek kutsu “eskolarragoa” eta ikasgelan zentratua dakarte, eta horrek ez du unibertsitatearen funtsarekin hain ondo bat egiten, ezta estatutu-testuak berak ikasle kolektiboari ordezkaritza-organoetan, ebaluazio-prozesuetan eta unibertsitate-bizitzan parte hartzeko duen rolaarekin aitortzen dizkion eginkizunekin ere.

Hizkera inklusiboari buruz

“Premia bereziak dauzkaten pertsonak” terminoa erabiltzeari dagokionez, azpimarratu behar da kontzeptu oso zabala dela, eta errealitate, egoera eta premia oso desberdinak bildu ditzakeela. Hain zuzen ere, izaera orokor hori dela eta, haren erabilerak, nahigabe, errealitate jakin batzuk lausotu edo ikusezin bihurtzen lagun dezake; adibidez, desgaitasuna duten pertsonena, zeinen premiek, eskubideek eta aldarrikapenek aitortza eta arreta berezia behar duten.

Horrek ez du esan nahi, inondik ere, laguntza espezifikoak behar izan ditzaketen bestelako egoerak existitzen ez direnik, hala nola garapenaren nahasmendu jakin batzuk, zeinek desgaitasun-egoera batekin ez dute zertan bat etorri behar. Hala

ere, errealitate guztiak *"premia bereziak"* izendapenaren pean biltzeak zehaztasun falta ekar dezake, eta ikuspegi inklusibo batetik ez da beti formulaziorik egokiena. Bereizketa terminologiko zehatzagoa egiteak aukera ematen du dauden kasuistika askotarikoak aitortzeko, haien ikusgarritasuna bermatzeko eta unibertsitate-komunitatearen barruan integrazio benetan erreala eta eraginkorra sustatzeko.

Illo horretan, Nazio Batuen Erakundeak desgaitasunaren eremuan hizkera inklusiboa erabiltzeko gidalerroetan berariaz gomendatzen du *"pertsona lehenengo"* ikuspegia, eta egokitzen jotzen du *"desgaitasuna duen pertsona"* terminoa erabiltzea. Era berean, gidalerro horiek ohartarazten dute eufemismoak saihestu behar direla – adibidez, *"aniztasun funtzionala"* –, formulazio horiek batzuetan paternalistak izan daitezkeelako, estereotipo negatiboak indartu ditzaketelako eta, zenbait kasutan, desgaitasunari buruz zuzenean hitz egitea saihesteko ere erabiltzen direlako (NBE Geneva, d. g.).

"Dibertsitate funtzionala" eta antzeko esamoldeen kasuan, Nazio Batuek adierazi dute horrelako terminoak erabiltzeak desgaitasuna *"leundu"* behar delako ideia okerra transmiti dezakeela, eta hori paternalista edo iraingarria izan daitekeela pertsona batzuentzat (NBE Geneva, d. g.). Ikuspegi horretatik, azpimarratzen da desgaitasuna zuzenean eta errespetuz aipatzea ezinbesteko baldintza dela eskubideetan oinarritutako ikuspegia bermatzeko.

Gomendio horiekin bat etorriz, American Psychological Association (APA) elkarteak desgaitasunari aplikatutako eufemismoak ez erabiltzea gomendatzen du, eta adierazten du *"premia bereziak"* bezalako adierazpenak desagokiak izan

daitezkeela desgaitasuna duten pertsonak aipatzeko erabiltzen direnean. Alborapenik gabeko hizkeraren gidan, APAk adierazten du hobe dela hizkera zehatza eta errespetuzkoa erabiltzea, eta paternalistatzat edo estigmatizatzailetzat har daitezkeen terminoak saihestea (APA, 2025).

Horregatik guztiagatik, desgaitasuna duten edo ez duten kolektiboak aipatzen direnean, eta arreta inklusioan jarri nahi denean, funtsezkoa da errealitate desberdinak integratzen dituen terminologia bat erabiltzea, eta hizkera inklusiboari buruzko nazioarteko gomendioekin koherentea izatea.

Horren adibide egoki bat *“berariazko premiak dituzten pertsonak”* terminoa erabiltzea litzateke. Izan ere, formulazio horrek modu egokian barne har ditzake desgaitasuna duten pertsonak, nahasmendu mota desberdinak dituzten pertsonak eta hezkuntza-laguntza espezifikoko beharrak dituztenak, eta, gainera, euskal administrazio publikoak hezkuntzaren arloan darabilen terminologiarekiko koherentzia bermatzen du, berariaz erabiltzen baitu *“hezkuntza-laguntzako berariazko premiak”* dituen pertsonaren kategoria (Eusko Jaurlaritza, s. f.).

Azkenik, aipatu behar da garrantzitsua dela pertsonen edo kolektiboen erabilitako terminologiari buruz adierazten dituzten berariazko lehentasunak kontuan hartzea. APAk adierazten duen bezala, desgaitasuna duten pertsonen ez dute talde homogeneo bat osatzen, eta hizkera aukeratzerakoan, ahal den neurrian, kontuan hartu behar da *“pertsonen beraiek identifikatzeko nahiago duten modua”* (APA, 2025).



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES



2.- ATARIKO TITULUA

Xedapen orokorrak



Atariko Tituluan Unibertsitatearen identitate orokorra eta jarduera esparrua definitzen dituzten estatutu-testuaren oinarritzko elementuak jasotzen dira. Atal honetan, besteak beste, unibertsitatearen izendapena (1. art.), misioa eta helburuak (4. art.) eta EHUren jarduera gidatu behar duten printzipio gidariak (5. art.) arautzen dira.

Atal honetan jasotako oharra, alde batetik, Unibertsitatearen izen ofizialari eta haren erabilera efektiboari buruzkoak dira (1. art.). Bestalde, Unibertsitatearen helburuen formulazioan (4.3 art.) idazketa-doikuntzak proposatzen dira. Azkenik, hizkuntza inklusiboarekin zerikusia duen proposamen puntual bat sartu da 5. artikulua lehen ataleko c) letran, txosten honetan jasotako gogoeta orokorrarekin bat etorritz.

1. artikulua

Gure Unibertsitatearen izenari dagokionez, uste dugu komunitate honek “Euskal Herriko Unibertsitatea” izenaren alde egin beharko lukeela.

Ikuspegi historiko batetatik begiratuta, hau ez litzateke unibertsitate honek izena aldatzen duen lehen aldia. 1968an, Frankismo garaian, “*Universidad de Bilbao*” izenarekin sortu zen. Trantsizioan zehar, unibertsitate-barrutia hiru Lurralde Historikoetara zabaldu zen, eta 1980an, ministerio-agindu bidez, izena “*Universidad del País Vasco (Euskal Herriko Unibertsitatea)*”-ra aldatu zen, unibertsitatearen errealitate berriarekin bat zetorren izendapena ezartzeko asmoz. 1985ean, jada autogobernuaren garapenean sakontzen hasita, Estatutu

berri batzuk onartu ziren, eta, horien bidez, bi izendapenak parekatu ziren, barra diagonal baten bidez banatuta. Horrela, parentesiak saihestu ziren, euskarazko izenari gutxiagotasun edo subsidiariorotasun sentsazioa ematen baitzion.

Bada, efektiboki, euskarazko izendapenaren subsidiariorotasun hori oraindik ere antzematen da. Unibertsitate-komunitateko zati handi batek ondo dakien bezala, *UPV/EHU* izenaren erabilerak sarritan eragiten du jende askok, laburtze aldera, unibertsitateari erreferentzia egiteko *UPV* erabiltzea, eta horrek *Universitat Politècnica de València*-rekin nahasmena sortzen du maiz. Hori dela eta, kanpo-ordezkaritzako foro askotan, gaizki-ulertuak saihesteko, ohikoa da *UPV/EHU*-ri zuzenean *EHU* deitzea.

Era berean, euskarazko izena aukeratuta, Estatuko erkidego elebidunetako beste unibertsitate batzuen ildoari jarraituko genioke. Esaterako, *Universitat de les Illes Balears*, *Universitat de Barcelona*, *Universitat Politècnica de València* edo *Universitat Autònoma de Barcelona* unibertsitateek. Unibertsitate horiek, bi hizkuntzetarako duten izen ofizialean, katalana edo valentziera erabiltzen dute, tokian tokiko gaztelania ez den beste hizkuntza koofiziala. *Mondragon Unibertsitatearen* kasuan, haren izaera eta konfigurazio instituzionala unibertsitate publiko batena ez bezalakoa izan arren, izendapenean euskararen erabilera ere adibide esanguratsua da.

Gainera, aukera horren alde egin du jada EHUK gure unibertsitateko hainbat ekimen, plataforma edo zerbitzutan, hala nola, *EHUGune*, *EHUPosta* edo *EHUKultura* izenetan. EHUren proiektu edo tresna horietan -kasu batzuetan, duela bi hamarkada baino gehiagotik erabiltzen direnak- Unibertsitatearen euskarazko

izena erabiltzen da marka sinplifikatuagoa eta identifikagarriagoa lortzeko, eta horrek ez die, inola ere, kalterik egin gaztelania erabili nahi dutenen hizkuntza-eskubideei, ez eta erakundearekin komunikatzeko edo gure unibertsitate-komunitatean bizitzeko gaztelania aukeratzea nahiago dutenei ere.

Illo beretik, gaztelaniaz besteko hizkuntza koofizial bateko bertsioa erabiltzea beste eremu batzuetan ere gertatzen den praktika bat da, gaztelania gutxietsi edota mespretxatu gabe: Oso arrunta da, esaterako, Eusko Jaurlaritzako edo Catalunya edo Comunitat Valencianako exekutiboko buruei *Lehendakari* edo *Presidenta* edo *President de la Generalitat* deitzea, *Ararteko* esatea Euskadiko Herriaren Defendatzaileari, edo *Aldezle* erabiltzea gure Unibertsitateko Defendatzailea izendatzeko, eta horrek ez dakar inolako diskriminaziorik gaztelaniaz mintzatzen diren herrikideei.

Bestetik, gaztelaniazko izena bigarren tokian jartzeak hizkuntza-zailtasunak ekar ditzake. Izan ere, euskaraz unibertsitateari erreferentzia egitean desoreka edo inkongruentzia gramatikalak sor litzake, *Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco* izena aukeratuz gero. Zehazki, *“Unibertsitatea”* hitza beti NOR kasuan mantenduko litzateke, baina *“Vasco”* osagaiak, testuinguruaren arabera, kasu desberdinetan deklinatuko litzake, eta horrek euskarazko erabilera koherente eta naturala zaildu egingo luke.

Azken batean, *EHU* izena aukeratuz gero, izen bakar bat erabiltzeak koherentzia eman eta eragingo luke izendapen formalaren eta benetako erabileraren artean. Gaur egun, marka dagoeneko EHU gisa artikulatzen da eta, oro har, harrera ona izan du; hain zuzen ere, unibertsitatea identifikatzeko modua sinplifikatu eta

argitzen duelako. Praktikan, unibertsitate-komunitatearen eta kanpoko espazioen zati handi batek erreferentzia hori erabiltzen du nahasterik ez sortzeko. Izendapen estatutarioa errealitate horrekin lerrokatzeak aitorpena erraztuko luke, atxikimendu-sentimendua indartuko luke eta Unibertsitatearen identitate argi eta propioa proiektatuko luke, praktikan euskarazko izena lausotzen duten izendapen bikoitzen beharrik gabe.

4.3. artikulua

Egungo erredakzioa:

4. artikulua. Euskal Herriko Unibertsitatearen misioa.

(...) 3. Hauek dira unibertsitatearen helburua:

a) Ikasleei kalitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntza ematea, jakintzaren transmisioari begira, heziketa integral eta etengabearen bidez, batetik laneratzeko prestakuntza profesionalik onena bermatuz —bereziki indarturik ahalmen, gaitasun eta trebetasun espezifiko eta zeharkakoak, hala jakintza zientifikoari dagozkionak nola metodo zientifiko, teknologiko, sozial, humanistiko, kultural eta artistikoei berezko zaizkienak—, eta, bestetik, haiei behar diren gaitasunak emanaz herritar aktiboak, gizartearekiko arduratsuak eta solidarioak izan daitezen.

Erredakzio-proposamena:

4. artikulua. Euskal Herriko Unibertsitatearen misioa.

(...) 3. Hauek dira unibertsitatearen helburua:

a) Ikasleei kalitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntza ematea, jakintzaren transmisioari begira, heziketa integral eta etengabearen bidez, batetik, haiei behar diren gaitasunak emanaz herritar aktiboak, gizartearekiko arduratsuak eta solidarioak izan daitezten eta, bestetik, laneratzeko prestakuntza profesionalik onena bermatuz —bereziki indarturik ahalmen, gaitasun eta trebetasun espezifikoko eta zeharkakoak, hala jakintza zientifikoari dagozkionak nola metodo zientifiko, teknologiko, sozial, humanistiko, kultural eta artistikoei berezko zaizkienak—.

Estatutuen zirriborroan idatzita dagoen moduan, unibertsitatearen helburuen artean lehen tokian kokatzen den ideia “laneratzeko prestakuntza profesionala” da. Prestakuntza profesionala funtzio garrantzitsua dela zalantzan jarri gabe, uste dugu Estatutuak bezalako arau batean testuak lehenik unibertsitate publikoaren, ezagutzaren transmisioari eta herritar aktibo, arduratsu eta solidarioen formakuntzari lotutako prestakuntza- eta gizarte-dimentsioa islatzea komeni dela.

Proposamenak ez du edukirik ezabatzen eta ez du kontzeptu berririk sartzen. Elementu berberak mantentzen ditu eta esaldia berrantolatu besterik ez du egiten. Horrela, prestakuntza profesionalari buruzko erreferentziari eusten zaio, baina unibertsitate-helburuaren lehen ardatz gisa agertzea saihesten da, eta herritarrei zuzendutako prestakuntza aurretik kokatzen da, koherenteagoa baita unibertsitatearen misioarekin eta txostenaren gainerako ataletan proposatzen den ikuspegi orokorrarekin.

5. artikulua.

Hizkera inklusiboari buruzko gogoeta orokorrarekin bat etorritz, 5. artikulua lehen ataleko c) letra honela aldatzea proposatzen dugu:

5. artikulua. *Printzipio gidariak.*

1. (...)

c) Desgaitasunak edota berariazko premiak dauzkaten pertsonak unibertsitate komunitatean integratzea sustatuko du. (...)



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES





3.- I. TITULUA

EHUko Komunitatea

I. Tituluan (EHUko Komunitatea), zirriborroak unibertsitate-komunitatea norkosatzen duen arautzen du, eta eskubideen eta betebeharren esparru komun bat ezartzen du. Titulu honen barruan jasotzen dira, bereziki, EHUko ikasle izaera zerrek duen definitzea (10. art.) eta ikasleriaren eskubideen zerrenda (11. art.), betebeharren arauketarekin batera (12. art.). Halaber, ikasleriaren ordezkartzaren oinarritzko elementuak jasotzen dira (15. art.), taldeko delegatuen figura (16. art.) barne, eta baita desgaitasunak eta berariazko premiak dauzkaten pertsonen buruzko kapitulu espezifiko bat ere.

eskubide eta betebeharren esparru orokorrari buruzko proposamenak (9. art.), ikasle izaeraren definizioa (10. art.) eta ikasleen eskubideei dagokienez idazkeran eta irismenean egin beharreko zenbait doikuntza (11. art.), baita 12. artikuluko g) atalari buruzko gogoeta puntual bat ere. Horrez gain, Ikasle Kontseiluen funtzionamenduari eta osaerari buruzko proposamenak jasotzen dira (15. art.), taldeko ordezkarien figura balioan jartzen da (16. art.), eta premia bereziak dituzten pertsonen buruzko kapituluaren terminologia inklusiboari lotutako proposamen bat ere txertatzen da.

9. artikulua

9.1.l) artikulua

Deskonexio digitalerako eskubidea aitortzea proposatzen dugu, 9. artikuluko 1. puntuko l) atala aldatuz:

9. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak.

1. Unibertsitateko kideek eskubide hauek izango dituzte, gainerako arauetan eta estatutu hauetako beste artikuluetan jasotakoez gain:

(...) l) Bizitza pertsonala, lana eta familia bateratzea eta deskonexio digitalerako eskubidea, atsedenaldi, baimenaldi eta oporraldiak errespetatzen direla ziurtatuz. Hala, ezingo da ezarritako ordutegitik kanpo komunikazio akademiko edota irakaskuntza-, ikertzailatza- edo administrazio-komunikazioei arretarik egin edo erantzunik ematea exijitu, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik.

Justifikazioa:

Teknologia digitalen garapenak eta ezarpenak sakon eraldatu dute unibertsitate-bizitza, komunikazioa eta informaziorako sarbidea erraztu dituztelako, baina, aldi berean, denbora akademikoaren, lan-denboraren eta denbora pertsonalaren arteko mugak lausotu dituztelako ere. Testuinguru horretan, unibertsitate-komunitateko kideei deskonexio digitalerako eskubidea aitortzea oinarrizko berme bihurtzen da, atsedenaren, osasunaren eta kontziliazioaren babesa indartzeko.

Eskubide hori ordenamendu juridikoan zehar beste arau batzutan aurki dezakegu. Lan-eremuan, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoak berariaz aitortzen du deskonexio digitalerako eskubidea, "atsedenaldiak, baimenak eta oporrak errespetatzea" bermatzeko (88. art.). Era berean, Langileen Estatutuak eskubide hori jasotzen du intimitatearekin eta gailu digitalen erabilerarekin lotutako eskubideen artean (20 *bis* art.).

Hala ere, unibertsitate-eremuan, eta, bereziki, ikasleriari dagokionez, eskubide horrek oraindik ez du aitortza esplizitu eta orokorrik. Ikasleonek egunerokoan argi ikusten da mezu elektronikoak eta plataforma birtualen bidezko abisuak etengabe jasotzeak –gauez, asteburuetan edo eskolarik gabeko aldietan ere–, printzipioz, derrigortasunik egon ez arren, beti prest egon behar izatearen sententzia sortzen duela, eta horrek atsedenera, osasun mentalari eta betebeharrak akademikoetatik benetan deskonektatzeko gaitasunari kalte egiten diola.

Ikasleriaren ikuspegitik, egoera hori areagotu egiten da, askotan, harreman hierarkiko inplizituak norbanakoak bere mugak ezartzeko duen gaitasuna baldintzatzen dutelako. Ordutegitik kanpo jasotzen diren jakinarazpenek, bereziki irakasleengandik edo figura instituzionaletatik datozenek, berehalako erantzuna emateko presioa sor dezakete, nahiz eta horretarako betebeharrak formalik ez egon. Deskonexio digitalerako eskubidea modu argian araututa ez egoteak, azken finean, mugak jartzeko ardura pertsona bakoitzaren gain uzten du, ardura hori instituzioarena izan beharrean.

Horregatik guztiagatik, unibertsitate-komunitate osoarentzat deskonexio digitalerako eskubidea estatutuetan aitortzeak ez luke jardura akademikoa mugatuko; aitzitik, baliabide digitalen erabilera arduratsu eta arrazoizkoa ezartzea ekarriko luke. Aitorpen horrek gizatartasunarekin, jasangarritasunarekin eta huraosatzen duten pertsonen zaintzarekin konprometituagoa dagoen unibertsitate bat eraikitzen lagunduko luke, errespetuan eta ongizate kolektiboan oinarritutako kultura instituzionala indartuz.

9.2.b) eta 9.4. artikulua

Halaber, balioan jarri nahi dugu zirriborroko 9. artikuluko 2. eta 4. ataletan jasotako ikuspegi ez-zigortzailea eta errestauratiboa, gatazkak modu baketsu edo alternatiboetan konpontzea lehenesten duelako eta azken urteotan unibertsitate-bizikidetzaren eta etikaren arloan garatu den araudiarekin bat datorrelako. Ikuspegi horiek kaltea konpontzera, pertsonak berriz integratzera eta etorkizuneko arau-hausteak prebenitzera bideratzen dira, eta, horren adierazgarri, Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, 2014 eta 2018 artean Euskadin gazteei aplikatutako bitartekaritza-prozesuen %79k emaitza positiboa izan zuten; antzera, Nazio Batuen Droga eta Krimenaren Aurkako Bulegoak (UNODC) ere ebidentziak jasotzen ditu justizia errestauratiboak arau-hauslea bere ekintzen erantzukizuna hartzera eta konpontzera bultzatzen duela, jokabide-aldaketak erraztuz eta berrerortze-tasa murriztuz, eta, aldi berean, biktimak ahalduntzen dituela, ahotsa izateko eta entzunak izateko aukera emanez eta erabaki-prozesuan modu aktiboan parte hartzera gonbidatuz.

Hori guztia esanda, gatazkak konpontzeko ikuspegi bakezaleago eta integratzaileago hori ospatzen dugu, besteak beste, Etika Kodearen, Bizikidetzara Araudiaren eta EHUko Bizikidetzara Batzordearen zereginaren balioa azpimarratuz.

9. artikulua. Eskubideak eta betebeharrak.

(...) 2. Unibertsitateko kideek betebeharrak hauek izango dituzte, gainerako arauetan eta estatutu hauetako beste artikuluetan jasotakoez gain:

(...) b) Beste pertsona guztien eskubideak errespetatzea eta haiek begirunez eta diskriminatzeke tratatzea. Horretarako, EHUK bere bizikidetzara arauak eta kode etikoa onartuko ditu, eta sustatuko du unibertsitateko

kideen parte hartzea gatazken konponbide alternatiborako eta haiek sortutako kalteen erreparaziorako prozesuetan, unibertsitateko elkarbizitza bere onera ekartzeari begira.

(...) 4. Unibertsitate komunitatean sartzean, kide berri bakoitzari bere sail, ikastegi edo zerbitzuak bere eskubide eta betebeharrak jakinaraziko dizkio, hala unibertsitateko kide guztiei dagozkienak nola bere kolektibo espezifikuari dagozkionak.

10. artikulua

Zirriborroak EHUko ikasleak nortzuk diren definitzen du eta, gainera, definizio horren barruan bizitza osoko prestakuntzaren esparrua txertatzen du. Azken zati horretan, artikulua lehen tokian kokatzen ditu "enplegarritasunera eta lan jardunera bideratuak" diren ikasketak, eta ondoren uzten ditu "jakintza, kultura eta zientziaren dibulgaziora" bideratutakoak.

Egungo erredakzioa (zirriborroa):

10. artikulua. Ikasleak nortzuk diren.

EHUko ikasleak dira titulazio ofizialetan, berezko tituluetan edo bizitza osoko prestakuntzako ikasketa espezifikoetan matrikulatuta dauden pertsonak, titulazio horiek enplegarritasunera eta lan jardunera bideratuak izan nahiz jakintza, kultura eta zientziaren dibulgaziorako izan.

Erredakzio-proposamena:

10. artikulua. Ikasleak nortzuk diren.

EHUko ikasleak dira titulazio ofizialetan, berezko tituluetan edo bizitza osoko prestakuntzako ikasketa espezifikoetan matrikulatuta dauden pertsonak, titulazio horiek jakintza, kultura eta zientziaren dibulgaziora nahiz enplegarritasunera eta lan jardunera bideratuak izan.

Artikuluaren egungo idazkerak lehentasunen ideia bat transmititzen du. Formulazio horrekin ematen du enplegarritasuna eta lan-merkatura irtetea dela unibertsitateari gehien axola zaiona, eta, gure ustez, hori ez dator bat unibertsitate publiko batek izan behar duen xede nagusiarekin: ezagutza, kultura eta zientzia sortzea eta transmititzea, pentsamendu kritikoa eratzea eta gizarte-aurrerapenari laguntzea. Zalantzarik gabe, enplegarritasuna garrantzitsua da, baina uste dugu ez lukeela artikuluaren asmo nagusia edo lehena markatu behar.

11. artikulua.

11. artikuluari dagokionez, idazkeran zenbait aldaketa, ñabardura edo argibide proposatzen ditugu.

Artikulu horren izenburuan eta sarrerako paragrafoan, "ikasleen eskubide indibidualak" formulak erabiltzea proposatzen dugu. Alde batetik, azaldu den bezala, binarismoa saihesteko eta errealitate guztiak aurreikusteko, eta, bestetik, argi uzteko manu horretan jasotzen diren eskubideen subjektuak ikasle kolektiboa osatzen duten pertsonak direla, eta ez eskubide-subjektu kolektibo bat.

11. artikulua.- Ikasleriaren eskubide indibidualak.

Ikasleek eskubide hauek izango dituzte, indarreko ordenamendu juridikoan eta estatutu hauetan jasotako beste eskubide eta ahalmenez gain: (...)

11. artikuluko c) atalari dagokionez, eskubide hau aitortzearen helburua da ikasleek irakasgai batean matrikulatu aurretik informazio guztia eskuragarri izatea, hau da, irakaskuntza-gida eta ebaluazioen data guztiak, matrikulazio unean bertan. Horrela, ahal den neurrian, saihestu nahi da ebaluazio-probak azken unean edo egun gutxiko tartearekin finkatzea, edo ikasturtea aurrera joan arte irakatsiko den edukia, ponderazioak eta ebaluazio-irizpideak ez ezagutzea. Egoera horiek, EHUren araudiak jasotzen duenaren kontra izan arren, sarri gertatzen direla badakigu, bai geure esperientziagatik, bai ikasleen kexak jasotzen eta kanalizatzen ditugunetan ikusten dugulako. Horregatik, funtsezkotzat jotzen dugu eskubide hori estatutu-mailatik bertatik bermatuta egotea.

11. artikulua.- Ikasleriaren eskubide indibidualak.

(...) c) Irakats eskaintza matrikula egin aurretik ezagutzea, hau da, aurrez jakitea irakasleak ustez nortzuk izango diren, irakaskuntza-gida, zein hizkuntzatan emango diren eskolak, eta noiz izango diren azken-ebaluazio eta ebaluazio jarraiturako probak eta kasuan kasuko deialdiak. (...)

EHUko egungo hizkuntza-errealitatea kontuan hartuta, oso garrantzitsua iruditzen zaigu ikasleei bermatzea Euskadiko bi hizkuntza ofizialetan (euskara eta gaztelania) ikasteko eskubidea unibertsitate-ikasketak egiten ari diren bitartean. Izan ere, gaur egun hautazko irakasgai kopuru esanguratsu bat gaztelaniaz

bakarrik eskaintzen da, eta horrek mugatu egiten du ikasleek ikasteko hizkuntza askatasunez aukeratzeko duten aukera.

Beraz, bigarren tarteki hori 11. artikuluko d) atalari gehituta, gustatuko litzaiguke hizkuntza aukeratzeko askatasuna ziurtatzea, irakaskuntza-eskaintza osoa euskaraz eta gaztelaniaz egongo dela bermatuz, EHUn ikasi nahi den hizkuntzaren aukeraketak ez dezan eragin unibertsitatearen mendeko faktoreetan.

11. artikulua.- Ikasleriaren eskubide indibidualak.

(...) d) Aukeratu duten hizkuntzan ikastea, irakats eskaintzaren programazioaren barruan. Horretarako, ikasketa guztien zehar Euskadiko bi hizkuntza ofizialetan ikasteko eskubidea bermatuko da. (...)

Era berean, egokitzen jotzen dugu instalazioak eta baliabide materialak erabiltzeko eskubidearen eremua, kultura- eta kirol-jardueretarako zirriborroan aurreikusitakoa, ikasleen ordezkaritza-jardueretara zabaltzea.

11. artikulua.- Ikasleriaren eskubide indibidualak.

(...) f) Ikasketak eta kultura-, kirol- eta ordezkaritza-jarduerak behar bezala egiteko instalazio eta baliabide material egokiak izatea, irisgarritasun unibertsala bermatuta. (...)

g) atalari dagokionez, gure proposamena bikoitza da. Alde batetik, atala bitan banatzea planteatzen dugu, bi eskubide desberdin jasotzen dituelako eta bakoitzak bere arrazoa eta oinarria duelako. Bestetik, ikerketan hasteko eskubideari ñabardura bat gehitzea proposatzen dugu, baldintza duinen

erreferentzia txertatuz. Gure ustez, baldintza horiek unibertsitate publiko bateko ikerketa-lanaren berezkoak izan beharko lirateke, eta EHUren barruan berariaz bermatu beharko lirateke.

11. artikulua.- Ikasleriaren eskubide indibidualak.

(...) g) Unibertsitateko organoen bitartez ikasketen diseinu, antolaketa eta ebaluazioan parte hartzea.

g bis) Hala badagokio, ikerketa zereginetan laguntzea eta lehen urratsak ematea, behar bezala gidatuta eta gainbegiratuta eta baldintza duinetan.
(...)

Estatutuen zirriborroan ikasleek "jarduera akademikoen diseinua eta unibertsitatean jasotako arreta egokiak izatea lana, familia eta ikasketak bateratu ahal izateko" eskubide gisa jasotzea balioan jartzen dugu. Hala ere, eskubide hori benetako eraginkortasun juridikorik gabe gera ez dadin, erregelamendugarapenik ez dagoelako, egokitze jotzen dugu estatutuetan berariaz aurreikustea matrikula aldatzeko edo baliogabetzeko aukera muturreko kasuetan, hala nola ordutegi-bateraezintasuna sortzen denean edo behar bezala egiaztatutako egoera pertsonal berezietan.

11. artikulua.- Ikasleriaren eskubide indibidualak.

(...) i) Araudi bidez xedatuko diren baldintzetan, jarduera akademikoen diseinua eta unibertsitatean jasotako arreta egokiak izatea lana, familia eta ikasketak bateratu ahal izateko. Ondorioz, gerora sortutako ordutegi-bateraezintasunik edo behar bezala egiaztatutako egoera pertsonal

berezirik balego, ikasleriak ikasgai horien matrikula baliogabetzeko edo aldatzeko eskubidea izango du. (...)

Unibertsitateak ikasleen osasun mentala eta emozionala ere aitor dezan, eskubide hori Estatutuetako 11. artikuluan jasotzea proposatzen dugu. Funtsezkotzat jotzen dugu hain oinarritzkoa den gai bat, alde batera utzi behar ez dena, jasotzea, ongizate integralaren oinarritzko zutabea eta ikasleen garapen akademikoa, pertsonala eta soziala bermatzeko ezinbesteko baldintza baita. Ildo horretan, ezinbestekoa iruditzen zaigu EHUren Estatutuetan orientazio psikopedagogikorako sarbidea bermatzea, baliabide instituzional giltzarria delako zailtasun akademikoak, emozionalak eta egokitzapenekoak detektatzeko, prebenitzeko eta lantzeko. Horrela, osasun mentalaren babesa indartzen da, aukera-berdintasuna bermatzen da, eta ikasleen eskubideak erabat baliatzeko baldintzak sendotzen dira.

11. artikulua.- Ikasleriaren eskubide indibidualak.

(...) j bis) Unibertsitate-araudian xedatutako baldintzetan orientazio psikopedagogikoa jasotzeko eta osasun mental eta emozionalaren zaintzarakoa. (...)

Oso positiboa iruditzen zaigu m) letra hori estatutuen zirriborroaren 11. artikuluan sartzea, baina, artikulua horrek erregelamendu bidezko garapena beharko duela jakinda ere, estatutuetan zehaztu eta bermatu behar diren kasu batzuk egon beharko liratekeela uste dugu. Zehazki, Langileen Estatutuan eta Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuan eta gainerako araudi aplikagarrian langileentzat aurreikusitako kasuak aurreikusi nahi dira.

Kasu honetan, bigarren paragrafoan gehitu ditugun egoerak (heriotza, haurdunaldia, ospitaleratzea —hospitalekoa zein anbulatoriokoa—, edoskitzea edo mendekoen zaintza) beraien izaerak berak egiaztatzen du zailtasun-egoerak direla.

Era berean, familiartekotzat edo hurbilekotzat hartzen jarraitu nahi izan dugu, familia nuklearraren (lerro zuzena eta anai-arrebak) edo lotura bereziko bizikideen zailtasunak alegatzeko, familia-mota guztiei arreta ematen saiatuz.

Azkenik, logikotzat jotzen dugu bai zailtasun larriko egoera, bai lotura berezi hori behar bezala egiaztatu behar izatea, erregelamendu bidez ezarriko denaren arabera.

11. artikulua.- Ikasleriaren eskubide indibidualak.

(...) m) Behar bezala egiaztatutako egoera pertsonal larrietan, EHUK arreta berezia ematea, praktikak eta aurrez aurreko bestelako jarduerak egiteko erraztasunak eskaintzea eta proba eta azterketen datak egokitzea.

Edozein kasutan, egoera pertsonal larri izango dira zuzeneko aurreko zein ondorengoko ahaide bat, alboko bigarren mailarako ahaide bat edota lotura estuko bizikide bat hiltzea, haurdunaldia, ospitaleratzea, edoskitzea edota mendekotasun-egoeran dauden ahaide edota bizikideen zaintza. Horiez gain, anbulategira bertaratzeak ere halako izaera izango du. Inguruabarrok behar bezala egiaztatu beharko dira. (...)

Azkenik, 11. artikuluko u) atala aldatzeko proposamen honekin adierazi nahi genuke ikasleok kexak, iradokizunak edo erreklamazioak ikasle kontseiluen bidez izapidetzeko aukera gugula.

11. artikulua.- Ikasleriaren eskubide indibidualak.

(...) u) Beren eskubide, askatasun eta interes legitimo guztiak bermatuak izatea horretarako ezartzen diren prozeduren bitartez, eta Aldezleari edo Ikasle Kontseiluei kexa, iradokizun edo erreklamazioak aurkeztea, eta, hala badagokio, Bizikidetza Batzordeari, bakoitzaren funtzionamendu arautegiaren arabera.

12. artikulua g) atalaren inguruko gogoeta

12. artikulua. Ikasleriaren betebeharrak.

(...) g) Unibertsitateko irakasleen eta agintarien jarraibideak betetzea. (...)

12. artikulua g) atalak hitzez hitz errepikatzen du USLOren 36.c) artikulua edukia. Hala ere, uste dugu beharrezkoa dela jasota uztea estatutu-testu batean txertatzeari eta helarazten duen mezuari buruzko gogoeta bat.

Formulazioa zabalegia da, eta, dagoen bezala, honela interpreta daiteke: ikaslea, oro har, irakasleen eta "agintarien" mende dagoela, baina ez da mugatzen zer gidalerro motari, zer eremutan aplikatzen diren eta zer mugarekin.

Unibertsitatean, harremana ez litzateke hierarkia orokor gisa planteatu behar, baizik eta harreman akademiko eta bizikidetza-harreman gisa, arau argietan, elkarrekiko errespetuan eta bermeetan oinarrituta. Ikasleria eskubideak dituen kolektiboa da, ordezkaritza eta parte-hartzea du unibertsitateko organoetan, eta estatutu-testuak berak ere aitortzen du rol aktibo hori.

Horregatik, idazkera hau USLOtik datorrela ulertzen badugu ere, egokia iruditzen zaigu jasota uztea formulazioa, gaur dagoen moduan, irekiegia dela eta interpretazio ez-desiragarriak ekar ditzakeela, irakurketa paternalista barne. Hori esanda, gogoeta egitera deitzen dugu ea komeni den idazkera hau zehaztaperen edo testuingururatzeko handiagorik gabe mantentzea, erantzukidetasunean, berdintasunean eta oinarrizko eskubideen errespetuan oinarritutako unibertsitate-kulturarekin bat ez datozen interpretazioak saihesteko.

15. artikulua aldaketa

Lehenik eta behin, artikulua honi 1 *bis* atal bat gehitzea proposatzen dugu, artikuluan zerrendatutako funtzioak Ikasle Kontseiluen multzoari dagokiola argitzeko, eta ez EHUKo estruktura desberdinetako Ikasle Kontseilu guztiei. Hortaz, Gobernu Kontseiluaren eskutan geratzen da konpetentzia-banaketa egitea, izatez, bera da Ikasle Araudia onartzen duena, EHUKo Ikasle Kontseiluak hala eskatuta edo hura aurretiaz entzunda.

Bigarrenik, bigarren ataleko a) letra aldatzea proposatzen dugu, Ikastegi, Egoitza edota Ataletako Ikasle Kontseiluetako Lehendakariak EHUKo Ikasle Kontseiluaren

parte direla espresuki esanik, EHUko ikasleriaren kide anitzeko ordezkaritza organo gorena den heinean.

Hirugarrenik, bigarren ataleko c) letraren aldaketa ere proposatzen dugu, argi gera dadin Ikastegi, Egoitza edota Ataletako talde-delegatu guztiak ez direla beren Ikasle Kontseiluetako kide, baizik eta haiek haien artetik hautatutako ordezkariak. Hala ere, formulazio honekin aukera zabalik uzten da etorkizunean, Ikasleen Araudiak hala ezarriko balu, taldeko delegatu guztiek dagokion Kontseiluan parte hartu ahal izateko.

Azkenik, EHUko Ikasle Kontseiluek aholkularitza juridikoa erabiltzeko eskubidea bermatzea proposatzen dugu, hirugarren atalaren amaieran beste tarteki bat itsatsiz.

Hauek, gobernu eta kudeaketa organoak ez diren arren (Campusetako Batzarrak edo Dekanoak izan litezkeen bezala) kide anitzeko ordezkaritza organoak dira eta, beraz, aplikagarri den araudi administratiboak dionaren arabera funtzionatu behar dute, esaterako, Unibertsitatearen ahalmen araugilearen (unibertsitate-autonomiaren muinaren parte dena -USLO 3.2.b) art., EK 27.10 art.-ak dionarekin lotuta- ondorioz onartutako arauak edo EHUri aplikagarri zaion araudi administratiboak diotena betez -3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoarena (4.2 art.)-.

Illo beretik, ohikoena ez den arren, Ikasle Kontseiluek, ikasleriaren partaidetza bideratzen duten eta Unibertsitateko lehen bitartekari den heinean,

konplexutasunagatik aholkularitza tekniko-juridiko profesionala eskatzen duten arazoak kudea ditzakete.

Beraz, Ikasle Kontseiluen funtzioek duten garrantziari eta hauek ikasleriaren bizitzan izan ditzaketen eragina kontuan hartuta, organook aholkularitza juridikoa erabiltzeko eskubidea izatea oso garrantzitsua dela deritzogu, bere jokaera "legezkotasun(a), objetibotasun(a), gardentasun(a), publikotasun(a), efikazia eta efizientzia" printzipioak jarraituz ematen dela bermatuz (ESPL 11.2.art.). Gainera, eskubide honen bere *ratio legis* xedapen berberaren bigarren tartekian dago, organo arteko koordinaziorako lege-eginbeharrarekin lotuta.

Azkenik, Ikasle Kontseiluek zerbitzu honetara jo ahal izateak haren jokaera zuzentasunez eta segurtasun juridikoa bermatuz -Zuzenbide Estatu batean funtsezkoa den printzipioa (EK 9.3. art)- ematea ziurtatuko lukeela deritzogu.

15. artikulua. Ikasle Kontseiluak.

1. Ikasle kontseiluek honako eginkizun hauek izango dituzte, beren eskumenen eremuan:

a) Ikasleria beren interesekoak izan daitezkeen gai orokor guztietan ordezkatzea, eta, horren harira, kolektibo horrek onartutako bitartekari gisa jardutea.

b) Ikasleriaren eskubideak eta betebeharrak bete eta errespetatu daitezen zaintzea.

c) Ikasleriari eragiten dioten ekimenak eta gatazken konponbidea kudeatzea, beren eskumenen esparruan.

d) Gobernu organoei beren eskumeneko gaiekin zerikusia duten proposamenak egitea, aztergaien zerrendan sar ditzaten.

e) Ikasleria elkarteetan eta unibertsitateko bizitzan parte hartzea bultzatzea.

f) Ikasleriari zuzenean eragiten dieten unibertsitateko arautegiak egiteko prozesuan entzunak izatea, eta alegazioak aurkezteko aukera izatea. Bereziki, entzun beharko zaie ikasleen ebaluazioari buruzko arautegia eta EHUko diziplina arautegia onartu aurretik.

g) EHUko aurrekontuetan kontseiluei propio esleitutako aurrekontua nola banatu erabakitzea, eta beren aurrekontuaren kargurako laguntzak onartzea.

h) Ikasleriari informazioa ematea, eskura dituzten bitartekoen bidez.

i) Unibertsitateko ikasleriaren jardunerako ildo nagusiak proposatu eta gauzatzea, haien eskubideak babestea eta bete daitezen zaintzea eta aldarrikatzea eta haietan sakontzeko lan egitea, eta ikasleen baldintza orokorrak hobetzeko ekimenak sustatzea.

j) Hala dagokionean, Ikuskaritza Zerbitzuari laguntzea, ikasleriaren irakaskuntza eskubideak bermatzeko neurriak ezartzeari begira.

k) EHUtik kanpoko organoetarako ikasleriaren ordezkariak hautatzea.

l) Etenaldi akademikorako deia egitea, arautegian horretarako ezarritako prozedurak betez.

m) Estatutu hauetan eta indarreko legerian esleitzen zaizkien gainerako eginkizunak.

1 bis. Aurreko atalean xedatutako funtzioak Ikasle Kontseilu desberdinen artean banatuko dira Ikasleen Arautegian, organoaren eta dagokion materiaren izaerari erreparatuta.

2. Hauek izango dira Ikasle Kontseiluetako kideak:

a) EHUko Ikasle Kontseilukoak: ikasleriak Gobernu Kontseiluan dituen ordezkariak, Campusetako Ikasle Kontseiluetako Lehendakariak eta Ikastegi edo Ataletako Ikasle Kontseiluetako Lehendakariak eta gainerako ordezkariak, azken hauek modu proportzionalean banatuko direlarik.

b) Campuseko Ikasle Kontseiluetakoak: ikasleriak Campuseko batzarrean dituen ordezkariak eta Campus horretako ikasleriak Gobernu Kontseiluan dituen ordezkariak.

c) Ikastegi edo Atal bakoitzeko Ikasle Kontseiluan: ikasleriak Ikastegi edo Ataleko Batzarrean dituen ordezkariak, Ikastegi edo Ataleko ikasleriak Klaustroan dituen ordezkariak eta ikastegi edo ataleko delegatuen ordezkariak.

3. Unibertsitateak baliabide eta espazio egokiak emango dizkie ikasle kontseiluei beren zereginak bete ditzaten, Ikasleen Arautegiari eta unibertsitateko gainerako arauei jarraikiz. Baliabideon artean arautegietan edo Estatutuetan xedatuta dituzten eginkizunak betetzeko aholkularitza juridikoa jasotzeko eskubidea egongo da.

16. artikulua

16. artikulua aurrerapena dakar egungo egoerarekin alderatuta; izan ere, berariaz aitortzen du taldeko ordezkarien figura, eta "berezko bitartekari" gisa definitzen ditu ikasleen eta ikastegiko edo ataleko Ikasle Kontseiluaren artean. Aipamen hori garrantzitsua da, ordezkariak direlako, praktikan, ikasleen ordezkartzaren lehen maila: ikasgelatik eta ikasleen egunerokotik hurbilen dagoen puntua, eta askotan

arazoak, proposamenak edo beharrak bideratzeko lehen bidea, beste organoetara iritsi aurretik.

Gainera, artikuluak zehazten ditu bai haien legitimitate demokratikoa (ikastaldiaren hasieran, taldeko ikasleen artean hautatuak izatea) bai haien eginkizunak ere, besteak beste, taldea ordezkaritza-organismoetan ordezkatzeari, ikasleen eskubideak betetzen direla zaintzea eta informatzeko betebeharra betetzea, betiere erreserbaz eta datu-babesari buruzko araudia errespetatuz. Oro har, idazkerak argitasun eta aitortza handiagoa ematen dio, dagoeneko, ikasleen ordezkaritza eguneroko funtzionamenduaren zati handi bat sostengatzen duen figura bati.

V. kapitulua

Hizkera inklusiboari buruzko gogoeta orokorretan azaldutakoa kontuan hartuta, aldaketa hauek proposatzen dira:

V. KAPITULUA. DESGAITASUNAK EDO BERARIAZKO PREMIAK DITUZTEN PERTSONAK

59. artikulua. Konpromisoa pertsonekin.

1. EHUK desgaitasunak zein berariazko premiak dauzkaten unibertsitateko kide guztiei aukera berdintasuna bermatuko die, eta, beraz, debekatu egingo du edozein diskriminazio mota, eta ekintza positiboko

neurriak ezarriko ditu pertsona hauen parte hartzea erabatekoa eta efektiboa izan dadin unibertsitatean. Helburu hori lortze aldera, ekintzak bultzatuko ditu berariazko premiak dauzkaten unibertsitateko kideek gainerako kideen aukera berberak dauzkatela ziurtatzeko. Beraz, beharrezko baliabideak, informazioa, laguntza eta bitartekoak jarriko ditu pertsona horien eskura.

2. Ezin izango da desgaitasunik edota berariazko premiarik daukan inor diskriminatu, ez zuzenean ez zeharka, unibertsitatean onartu eta sartzeko prozesuetan, ez unibertsitatean ikasketen jarraitzeko baldintzetan, ez titulu akademikoak edo onartuta dauzkaten bestelakoak baliatzean.

3. Desgaitasunak edota berariazko premiak dauzkan ikasleren batek hala behar izanez gero, ikastegiek eta sailek egokitzapenak egingo dituzte curriculumean gaitasunei eta ezagutzei eragin gabe, eta tutoretza bereziak ezarriko dituzte, ikasleak dituen premiei egokituak.

4. Unibertsitatea irisgarria izan beharko da

5. Unibertsitateak desgaitasunak edo berariazko premiak dauzkaten pertsonentzat gordetako lanpostuei buruzko arautegietan xedatutakoa beteko du, eta ezarri egingo du langileak hautatu eta kontratatzean.



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES





4.- II. TITULUA

Unibertsitatearen jarduna

II. Tituluan (Unibertsitatearen jarduna) EHUren jarduera akademikoaren muina arautzen da, bereziki unibertsitate-irakaskuntzak nola definitzen diren, zein helburu dituzten, irakaskuntza gidatu behar duten printzipioak zeintzuk diren, eta haren garapena baldintzatzen duten zeharkako elementuak zehaztuz, hala nola irakaskuntza-modalitatea eta irakaskuntzako hizkuntza-araubidea.

Titulu honetan jasotzen ditugun oharrek, batez ere, 65. artikuluan zentratzen dira. Lehenik, 1. atalan ordena-doikuntza bat proposatzen dugu, idazkerak unibertsitatearen berezko helburu akademiko eta hezitzaileak lehen lerroan jarritzan, eta ondoren utz dezan jardun profesionalerako prestaketari buruzko erreferentzia. Bigarrenik, 5. atala aldatzea planteatzen dugu, euskarari egiten zaion aipamena Autonomia Estatutuak xedatutakoarekin bat etor dadin, eleaniztasunaren ikuspegia eta koofizialtasuna mantenduta. Hirugarrenik, 6. atala osatzea proposatzen dugu, irisgarritasuna hobetzera bideratutako teknologia telematikoen erabilera berariaz lotu dadin irakaskuntzaren kalitatea mantentzearekin.

Gainera, 67. artikuluari dagokionez, balioan jartzen dugu Esperientziaren Gelak Estatutuetan jasotako irakaskuntzen egiturari txertatu izana, kontsulta publikoaren prozesuan egindako ekarpenekin bat etorritik.

65. artikulua

65. artikuluan, beste artikulua batzuetan bezala, 1. atalak lehen tokian jartzen du jarduera profesionalak gauzatzeko prestaketa. Dimentsio hori existitzen dela zalantzan jarri gabe, gure ustez komeni da ordena doitzea, unibertsitate-ikasketen xedea lehenik unibertsitatearen logika propioaren arabera formulatzeko (prestakuntza orokorra, espezializazio akademikoa eta ikerketarako hastapena) eta, ondoren, haren dimentsio profesionalagoaren arabera. Praktikan, proposatzen da 1. ataleko a) eta b) letrak berrantolatzea, lehen tartekia "jarduera profesionalera bideratuta" formulazioarekin hasi ez dadin.

Erredakzio-proposamena:

65. artikulua. Unibertsitateko ikasketen xedea.

1. Hauek dira EHUko ikasketen helburuak:

a) Prestakuntza aurreratua ematea, espezializatua edo diziplina anitzekoa, ikasketa edo lanbide espezializatura edo ikerlanak bultzatzera bideratuta.

b) Diziplina batean edo gehiagotan prestakuntza orokorra ematea, ikaskuntza bultzatzera eta jarduera profesionalera bideratuta.

c) Ikerketa tekniketan prestakuntza aurreratua ematea.

d) Unibertsitateko heziketa osagarria ematea, zeharkako gaitasunak sustatu eta bizitza osoko prestakuntza bultzatzeko. (...)

Bigarrenik, 65.artikuluaren bosgarren atalaren erredakzioaren aldaketa bat proposatzen dugu, euskeraren arlorrean Euskadiko Autonomia Estatutuaren 6.1 artikuluekin bat datorrena, bertan euskara Euskal herriaren hizkuntza propioa

dela xedatzen baita, gurean bi hizkuntzok duten koofizialitateari, bi hizkuntzok ezagutu eta erabiltzeko dagoen eskubideari eta gaztelera jakiteko *ex constitutione* xedatutako eginbeharrari (EK-ko 3.art.) kalte egin barik.

EHAako 6. artikulua.

1. Euskara, Euskal herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.

Horregatik, garrantzitsua da *herria* substantiboa NOREN kasuan deklinatua izatea, NONGO kasuan deklinatuz *herria* hitzaren esanahia aldatu egiten baita. Beraz, 65. artikuluaaren bosgarren atalaren erredakzioa ondorengoa izatea proposatzen dugu:

65. artikulua. Unibertsitateko ikasketen xedea.

(...) 5. EHUK eleaniztasuna sustatuko du irakaskuntzan, eta euskararen erabilera bermatu eta bultzatuko du, Euskal herriaren hizkuntza den neurrian. (...)

Hirugarrenik, artikulua bereko seigarren atalaren amaieran tarteki bat gehitzea proposatzen dugu, teknologia telematikoen bidez irakaskuntza pertsona gehiagorentzat irisgarriagoa egiteak irakaskuntzaren kalitatea kaltetu ez dezala bermatzeko.

65. artikulua. Unibertsitateko ikasketen xedea.

(...) 6. Irakaskuntza ofizialetan edo berezko tituluetan irakaskuntzaren modalitatea edozein delarik ere (aurrez aurrekoa, birtuala edo hibridoa),

*EHUk teknologia telematikoak erabiliko ditu ahalik eta jende gehienak izan dezan ikasteko aukera, **beti eskainitako hezkuntzaren kalitatea bermatuz.***

67. artikulua

Bizkaiko Esperientziaren Gelen zuzendariak kontsulta publikoko foroan egindako ekarpena kontuan hartuta, positibotzat jotzen dugu Estatutuetan Esperientziaren Gelak aurreikustea, EHUren gainerako irakaskuntzekin batera.

67. artikulua. Unibertsitateko ikasketen egitura.

(...) 3. Berezko tituluak eskuratzera bideratuta ez dauden berezko ikasketak ere eskaini ahalko ditu EHUk, etengabeko prestakuntzaren edo bizitza osoko prestakuntzaren arloan; horretarako, zenbait irakaskuntza modalitate daude, hala nola Esperientzia Geletan eskainitakoak, mikrokredentzialak, mikromoduluak eta bestelako programa laburrak. Horietan, EHUk ziurtagiria emango du, eta indarreko legediaren arabera homologatu eta aitortu ahalko dira.



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES





5.- III. TITULUA

Hizkuntzak

III. tituluan (Hizkuntzak), zirriborroak EHUn hizkuntza-politikaren oinarrizko elementuak arautzen ditu, bai eta politika horren jarraipena eta garapena unibertsitate-bizitzaren eremu guztietan egiteko aurreikusitako tresnak ere.

Titulu honetan, gure ekarpena 102. artikuluko 1. atalra mugatzen da, irakaskuntza-zentroetako Euskara Batzordeak arautzerakoan proposamen bat eginez.

102 artikulua lehenengo atala

Irakaskuntza-zentroetako Euskara Batzordeei dagokienez, interesgarria iruditzen zaigu haien sorrera, baina garrantzitsua deritzogu berariaz aurreikustea zentroko hiru kolektiboen parte-hartzea (ikasleria, TEKAZEL eta irakasleria), kolektibo bakoitzean dagoen hizkuntza-egoeraren azterketa zehatzagoa egin ahal izateko.

102. artikulua. Ikastegietako euskara batzordeak.

1. Ikastegi bakoitzean euskara batzorde bat egongo da, bertan hiru kolektiboen partaidetza bermatuta geratzen delarik. (...)




IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES



6.- IV. TITULUA

EHUren egitura



IV. Tituluan (EHUren egitura) zirriborroak Unibertsitatearen barne-antolaketa eta oinarrizko egiturak arautzen ditu, irakaskuntza-zentroak eta funtzionamenduari lotutako unitate zein organo desberdinak barne. Bloke honetan, EHU campus anitzeko unibertsitate gisa antolatzeke moduari eta fakultate, eskola eta ataletako jarduera antolatzeke moduari zuzenean eragiten dioten elementuak zehazten dira, baita laguntza-zerbitzu jakin batzuk ere.

Titulu honetan jasotako oharrek honetara bideratzen dira: lehenik, titulazioak edo jakintza-arloak partekatzen dituzten zentroen arteko lankidetzak-logika indartzera, 107. artikuluan 1 bis apartatu bat gehitzeko proposamenaren bidez. Bigarrenik, 108. artikuluan 1. apartatua aldatzea planteatzen da, Ataleko Batzordearen berriazko aipamena bermatzeko eta idazketa atalen antolaketa-errealitatera egokitzeko. Azkenik, 142. artikuluan aldaketa puntual bat txertatzen da, hizkera inklusiboari buruzko gogoeta orokorrekin koherentzian.

107. artikuluari 1 bis apartatua gehitzea

Hasiera batean Universidad de Bilbao gisa sortu bazen ere, 1977an, irailaren 23ko 2541/1977 Errege Dekretuaren bidez, haren barrutia Euskadiko hiru lurralde Historikoetara hedatu zen, ordutik, UPV (EHU)k (ondoren, UPV/EHU) bere Estatutu guztietako Atariko Tituluetan hainbat aipamen jaso ditu "lurraldeari dagokionez deszentralizatuta eta funtzionalki deskontzentratuta" (2 in fine, UPV/EHUren Estatutuak, martxoaren 18ko 70/1985 Dekretuaren bidez onartuak) edo UPV/EHU "campus anitzeko unibertsitate gisa" eratzeari buruzkoak. "(art. 2, UPV/EHUren

Estatutuak, abenduaren 23ko 322/2003 Dekretuaren bidez onartuak, eta 2, UPV/EHUren Estatutuak, otsailaren 15eko 17/2011 Dekretuaren bidez onartuak.

Illo beretik jarraitzen du zirriborro honek, 1. artikuluko 1. eta 3. apartatuetan kontzeptu horiek jasotzen baititu. Manu horiek betetzeko, atal hau gehitzea proposatzen dugu, EHUren printzipio horiek benetan gauzatu daitezen gure Unibertsitateko fakultate eta eskolen eginkizunei dagokienez.

107. artikulua. Izaera eta sorrera.

(...) 1 bis. Titulazio berberak, partekatutako titulazioak edota gaiagatik erlazionatuta dauden titulazioak eskaintzen dituzten Fakultate eta Eskolek kooperazio eta lankidetzan estuan egin beharko dute lan, Ikastegien autonomia alde batera utzi gabe. (...)

108. artikulua. lehen apartatua aldatzea

Goian aipatu eta garatutako deskontzentrazio-printzipioari jarraituz, proposatzen dugu, batetik, 108. artikuluko 1. apartatuan irakaskuntza-zentroko Sekzioko Batzarra berariaz jasotzea. Organo garrantzitsua da beren eginkizunak bete ahal izateko eta haren existentzia bermatzeko. Gaur egun, Ikastegien Araudi Markoan aurreikusita dago, baina ez da ageri ez indarreko Estatutuetan ezta helarazi zaigun proposamenean ere, nahiz eta beste egitura batzuetako batzarrak aipatzen diren, hala nola campusetakoak edo fakultate eta eskoletakoak. Bestetik, bigarren esaldi-zatian, "Fakultatea eta Eskola" artean dagoen eta lokailua edo lokailuaz ordezkatzeko proposatzen dugu; izan ere, sekzio bat fakultate batekoa edo eskola

batekoa izan daiteke, baina ezin da biak izan aldi berean (ezta bat baino gehiagokoa ere).

108. artikulua. Fakultate eta Eskola Atalak.

1. Irakaskuntzako jarduera dela-eta beharrezkoa denean, fakultate edo eskola atalak sortu ahal izango dira, bai eta beste ikastegi batzuen atalak ere, bat etorrira EHUko Ikastegi eta Egituren Arautegi Orokorrekin. Fakultate edo eskola atal bakoitzak koordinatzailea, idazkaria eta Ataleko Batzarra izango ditu, bai eta arautegi horretan zehaztutako ordezkaritza eta kudeaketa organoak ere. (...)

142. artikulua

Hizkera inklusiboari buruzko gogoeta orokorrekin koherentzian, honako aldaketa hau proposatzen da:

142. artikulua. Desgaitasunak edo berariazko premiak dauzkaten pertsonen arreta zerbitzua.

1. Unibertsitateak desgaitasunak edota berariazko premiak dauzkaten pertsonen arreta zerbitzua izango du.

2. Gobernu Kontseiluak arautuko du atal honen atxikipena, osaera eta funtzionamendua.



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES



A photograph of a modern, multi-story building with a facade featuring a grid of rectangular panels, some of which are recessed, creating a textured effect. The building is set against a clear blue sky. In the foreground, there is a green lawn with several young trees and a few benches. Two tall, white, modern light poles are visible. The image is framed by orange geometric shapes in the corners.

7.- VI. TITULUA

EHUren gobernua eta ordezkaritza

VI. Tituluan (UPV/EHUren gobernua eta ordezkaritza) zirriborroak Unibertsitateko gobernu- eta ordezkaritza-organoen antolaketa arautzen du, haien osaera, kargu jakin batzuk betetzeko baldintzak eta organo kolegiatuen funtzionamendurako oinarritzko arauak zehaztuz. Atal honetan jasotzen dira bai organo orokorrak (Klaustroa, Gobernu Kontseilua, Errektoretzaren hautaketa), bai zentroetako gobernu-egitura eta, hala badagokio, haien sekzioena ere.

Titulu honetan jasotzen ditugun oharrek bi norabidetan doaz. Alde batetik, ikastegietako atalen aitortza indartu nahi dugu organo kolegiatuen egituren, eta, horretarako, haien batzarrek 146. artikuluan berariaz jasotzea proposatzen dugu; era berean, arauketa garatzeko, 1. atala bis gehitzea eta 179 bis artikulua berria txertatzea planteatzen dugu. Ildo beretik, 178. artikulua egokitzea ere proposatzen dugu, ikastegiko Ikasle Kontseiluko Lehendakaritza Zentroko Batzarretan egotea bermatzeko, eta aurreikuspen hori ataletara ere egokitzeko.

Bestalde, 147. artikuluan jasotzen den pertsona bakarreko karguen bateraezintasun-araubidea argitzeko aldaketak proposatzen ditugu, gobernu-karguetara mugatuta, ikasleen ordezkaritza-lana alferrik ez zailtzeko. Era berean, 156. artikulua aztertzen da. Bertan klaustroa osatzeko bi aukera aurreikusten dira, eta bi ereduak arteko konparazioa eta horrek ikasleen ordezkaritzan izan dezakeen eragina baloratzen dira, baita ikasleen sektoreko klaustrokideen artean Ikasle Kontseiluko Lehendakaritza nahitaez sartzea ere. Halaber, positibotzat jotzen dugu Gobernu Kontseiluak 162. artikuluan proposatutako osaera, ikasleen zortzi ordezkarekin, Lehendakaritza barne, eta, azkenik, 166. artikuluan Errektoregoaren hautaketarako aurreikusten den ikasleen botoaren haztapena ere balioan jartzen dugu.

146. artikulua

107. eta 108. artikuluei dagozkien ataletan azaldutako arrazoiei dagokienez, eta filosofia horri jarraituz, Ikastegien Ataletako Batzordeen aurreikuspena proposatzen dugu 146. artikuluaaren bigarren atalaren e) letran.

146. artikulua. Gobernu eta ordezkaritza organoak.

(...) 2. Honako hauek dira EHUren gobernu eta ordezkaritzarako kide anitzeko organoak:

(...) e) Fakultate, eskola edo bestelako ikastegietako batzarrek. (...)

147. artikuluaaren izenburuaren aldaketa eta bere bigarren atalean *in fine* tarteki bat gehitzea.

147. artikuluari dagokionez, izenburua aldatzea proposatzen dugu, "ordezkaritza" hitza kenduta, eta, era berean, artikulua bereko bigarren apartatuaren amaieran "gobernu-" tartekia gehitzea, debekua gobernu-karguetara mugatuta geratu dadin. Izan ere, debeku hori ordezkaritza-organoetara hedatuko balitz, ia ezinezkoa izango litzateke ikasleen ordezkaritza. Izan ere, ikasleen ordezkaritza-organoen ezaugarriengatik, oso ohikoa da pertsona batek kargu bakarreko ardura bat baino gehiago izatea, adibidez ikastegi, egoitza edo ikastegiko atal bateko Ikasle Kontseiluko Lehendakaritza, Lehendakariordetza, Idazkaritza edo Diruzaintza, eta, aldi berean, dagokion campuseko Ikasle Kontseiluan edo EHUko

Ikasle Kontseiluan beste kargu bat izatea. Are gehiago, zentro, egoitza edo atal askotako kontseiluek kide kopuru mugatua dutela kontuan hartuta, karguak partekatzea sarritan ezinbestekoa da funtzionamendu egokia bermatzeko.

147. artikulua. Kide bakarreko gobernu-organoetako karguak betetzeko baldintzak.

(...) 2. Aldi berean ezin izango da kide bakarreko bi gobernu-organoren buru izan.

156. artikulua

Unibertsitate-komunitateari argitaratutako Estatutu-proposamenaren zirriborroan unibertsitate-klaustroa osatzeko bi aukera jasotzen dira, 156. artikuluaaren bi idazketa alternatiboren bidez. Bi aukerek mantentzen dute klaustroa unibertsitate-komunitatearen ordezkaritzako-organismo gorena dela dioen definizioa, eta baita errektorea, idazkari nagusia eta gerentea berezko kide direla ere; hala ere, desberdinak dira hautatutako klaustrokideen guztizko kopuruan eta, bereziki, sektoreen arteko banaketan.

Bi proposamen horien balorazio egokia egin ahal izateko, komeni da banaka aztertzea eta testuinguruan kokatzea, bai elkarren artean konparatuz, bai Unibertsitate Sistemaren martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoak (USLO) ezartzen dituen gutxienekoekin alderatuta. USLOk klaustroaren osaeran gutxieneko ehunekoak finkatzen ditu, eta ez kopuru absolutuak, eta horregatik, alderaketa egiteko 240 pertsona hautetsik osatutako klaustroa hartu da

erreferentziatzen (egungo osaketa). Jarraian erantsitako taulak konparazio hori jasotzen du, eta klustro bakoitzean irakasle eta ikertzaile doktore iraukorren eta ikasleen sektoreetan ordezkariak pertsonen ratioa ere barne hartzen du.

	IRI Iraunkor		Ikasleak	
	Klaustrokide kopurua	OPKR*	Klaustrokide kopurua	OPKR*
USLOren min.**	123	19,53	60	723
1. aukera	128	18,67	64	677,81
2. aukera	123	19,43	69	628,7

* Ordezkariak pertsonak / klustrokideak ratioa.

** USLOren gutxiengoa (USLOk ehunekoak baino ez ditu jasotzen, eta ez klustrokide kopuru zehatzak. Konparazio honetarako, beraz, 240 klustrokide hautetsi daudela suposatuko dugu.)

1. aukera: 250 kideko Klustroa

Lehen aukerak 250 pertsona hautetsik osatutako Klustro bat planteatzen du, eta 156. artikulua honela jasotzen du bere osakerari dagokionez:

156. artikulua. Izaera eta osaketa.

(...) 3. Horiez gain, beste 250 kide biltzen dira Klustroan, jarraian adierazita dauden taldeen ordezkari gisa:

a) Irakasle-ikertzaileen 151 ordezkari, honela banatuta:

i) 128 irakasle-ikertzaile iraukor.

ii) 19 irakasle-ikertzaile ez-iraukor.

iii) 3 ikertzaile ez-iraunkor, eta

iv) Irakasle elkartu bat.

b) Ikasleriaren 64 ordezkari, prestakuntza bidean dauden irakasle-ikertzaile ez direnak, horietako bat Ikasle Kontseiluko Lehendakaria izango delarik.

c) Teknikarien eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileen 35 ordezkari.

Ordezkaritzaren ikuspegitik, aukera honen arabera, ikasleen ratioa 678 ikasle ingurukoa da klaustrokide bakoitzeko, eta irakasle eta ikertzaile doktore iraunkorren ratioa, berriz, 19 pertsona ingurukoa da klaustrokide bakoitzeko. Beraz, ikasleen klaustro-kopuruaren aldaketa txiki samarrak eragin mugatua du ordezkaritza eraginkorrari dagokionez.

TERAZEL-ei dagokionez, aukera honek klaustro osoaren %14 inguru esleitzen dio. Pisu hori oso antzekoa da jarraian azaltzen den beste banaketa-aukerarekin.

2. aukera: 241 kideko Klaustroa

Bigarren aukerak hautatutako klaustrokideen guztizko kopurua 241 pertsonara murrizten du, egungo osaeratik hurbilago. Horrez gain, sektoreen arteko barne-birbanaketa jasotzen du. 156. artikulua honela idatzita geratuko litzateke:

156. artikulua. Izaera eta osaera.

(...)

3. Horiez gain, beste 241 kide biltzen dira Klaustroan, jarraian adierazita dauden taldeen ordezkari gisa:

a) Irakasle-ikertzaileen 138 ordezkari, honela banatuta:

i) 123 irakasle-ikertzaile iraunkor.

ii) 11 irakasle-ikertzaile ez-iraunkor.

iii) 3 ikertzaile ez-iraunkor, eta

iv) Irakasle elkartu bat

b) Ikasleriaren 69 ordezkari, prestakuntza bidean dauden irakasle-ikertzaile ez direnak, horietako bat Ikasle Kontseiluko Lehendakaria izango delarik.

c) Teknikarien eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuetako langileen 34 ordezkari.

Aukera honek eragin zuzena eta esanguratsua du ikasleen ordezkartzan. Klaustrokide bakoitzeko ratioa gutxi gorabehera 629 ikaslera jaisten da, eta horrek hobekuntza nabarmena dakar ordezkartza eraginkorrari dagokionez. Aldiz, irakasle eta ikertzaile doktore iraunkorren sektorean bost klaustrokide gutxiago izateak ia ez du ratioa aldatzen, eta praktikan antzera mantentzen da, klaustrokide bakoitzeko 19 pertsona ingururekin.

Era berean, TEKAZELen ordezkartza %14,11 ingurukoa da. Horrek berresten du bi aukeren arteko doikuntza ez dela kolektibo horren kontura egiten.

Konparaziozko gogoeta

Bi aukerak batera aztertuta, ondorio argi bat ateratzen da. Ikasleei esleitutako klaustrokide kopuruan egindako aldaketa txikiek eragin handia dute kolektiboaren ordezkartza-mailan. Aldiz, irakasle eta ikertzaile doktore iraunkorren sektorean antzeko aldaketek ia ez dute aldaketa nabarmenik sortzen ordezkartza-mailan.

Inpaktuaren alde horrek erakusten du, proportzionaltasunaren eta orekaren ikuspegitik, ikasleen presentzia indartzen duten doikuntzek aukera ematen dutela haien ordezkartza eraginkorra nabarmen hobetzeko, beste sektoreen ordezkartzari eragin esanguratsurik egin gabe.

Gainera, bi aukeretan jasotzen den berrikuntza garrantzitsu bat balioan jarri nahi dugu. Ikasleen sektoreko klaustrokideetako bat nahitaez Ikasle Kontseiluko Lehendakaria izatea berariaz jasotzea. Aurreikuspen horrek sendotu egiten du Ikasle Kontseiluak ikasleriaren ordezkartza-organo gisa duen zeregina, eta unibertsitate-komunitatearen ordezkartza-organo gorenean presentzia zuzena bermatzen du. Horri esker, ikasleen klaustroko parte-hartzeak koherentzia eta jarraitutasuna irabazten du, azkenean aukeratzen den banaketa edozein dela ere.

Parte-hartzeari buruzko gogoeta

Printzipio eta balio demokratikoetan oinarritutako unibertsitatea eraiki nahi badugu, ezinbestekoa da unibertsitate-komunitatea osatzen duten kolektiboek gobernu-organoetan benetako parte-hartze eraginkorra izatea bermatzea.

Organo horietan hartzen diren erabakien legitimitatea lotuta dago unibertsitatea osatzen dutenen ahotsa, eta bereziki ikasleena, benetan presente egoteari eta kontuan hartua izateari.

Ikasleen gobernu-organoetako parte-hartze portzentajeei buruzko eztabaidan, sarri esaten da ordezkaritza handitzeak gehiegizko ordezkaritza ekarriko lukeela, eta hori ez litzatekeela justifikatua egungo bertaratze edo partaidetza mailak kontuan hartuta. Hala ere, planteamendu hori sinplista da, eta ez ditu behar bezala aztertzen ikasleen parte-hartzea baldintzatzen duten egiturazko faktoreak.

UPV/EHUko Ikasleen II. Partaidetza Planak argi eta garbi identifikatzen ditu ikasleen parte-hartze txikia azaltzen duten arrazoi nagusietako batzuk. Horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: *“betebehar akademikoak (denborarik eza, derrigorrezko bertaratzea, lan-karga, ordutegien bateraezintasuna, etab.)”, “UPV/EHU norberarekin zerikusia ez duen zerbait bezala sentitzea (desafekzioa, erakundearekiko urruntasun sentrazioa, etab.)”* eta *“partaidetzare eragin txikia (garrantzi txikia erabakietan, esku hartzeko ezintasuna, erantzunik eza erakundearen aldetik, etab.)”* (EHU, 2024). Elementu horiek agerian uzten dute parte-hartze falta ez dela norbanakoaren interes faltaren ondorio, baizik eta ordezkaritza gauzatzea zailtzen edo eragozten duten baldintza instituzionalen ondorio.

Illo horretan, “ikasleek gobernu-organoetan parte hartzen ez dutela” esaten denean, ezinbestekoa da baieztapen hori testuinguruan jartzea eta inplikazioari eragiten dioten benetako oztopoak kontuan hartzea. Lehenik, kide anitzeko organo askotan nagusitzen den funtzionamendu-kultura kudeaketa

burokratikoaren logikara mugatzen da, eta horrek eztabaidarako eta eztabaida politikorako tartea murrizten du. Dinamika horrek sendotu egiten du ikasleen parte-hartzeak erabakiak hartzeko orduan eragin txikia duela dioen pertzepzioa, eta horrek, ondorioz, bertaratzeko eta jarraikortasunez inplikatzeko motibazioa ahultzen du.

Era berean, ordezkaritza-lana eta betebeharrak akademikoak bateratzeko dauden kontziliazio-neurriak ez dira nahikoak praktikan. Ikasleriaren Araudiak aurreikusten du ordezkaritza-organoetara joatea lehenestea, eskolak edo azterketak batera suertatzen direnean, baina ikasketa-planen egiturak eta ebaluazio jarraituak gero eta pisu handiagoa izateak aukera hori benetan bideraezina bihurtzen du ikasle askorentzat. Ebaluagarriak diren saioak edo derrigorrezko praktikak galtzeak kostu akademiko handia dakar, eta are gehiago kontuan hartuta amaierako ebaluazioa zorrotzagoa izan ohi dela eta berreskuratzeko edo konpentsatzeko tartea txikiagoa dela.

Horri gehitzen zaio ikasleriak unibertsitatearekiko duen atxikimendu-sentimendua ahula dela. Askotan, hori erabakiak hartzen diren guneetan ikasleen ahotsa ez dela entzuten edo kontuan hartzen ez dela sentitzearekin lotuta dago.

Ikuspegi horretatik, parte-hartze txikia ezin da erabili ikasleen ordezkaritza mugatzeko edo murrizteko aitzaki gisa. Kontrara, ikasleen inplikazioa errazten edo sustatzen ez duen gobernantza-eredu baten sintoma gisa ulertu behar da. Horregatik, ikasleek gobernu-organoetan duten ordezkaritzaaren ehunekoa handitzeak, USLOk ezarritako gutxienekoen gainetik ere, organo horien legimitate demokratikoa indartu dezake, parte-hartzeak benetako eragina duela

sentiarazten lagundu dezake eta ikasleek bizitza instituzionalean presentzia eta konpromiso handiagoa izatea sustatu dezake.

Azken batean, unibertsitate demokratikoago baterantz aurrera egiteko, ez da nahikoa ikasleak gobernu-organoetan formalki egotea bermatzea. Parte-hartze hori benetan eraginkorra izan dadin, aitortua senti dadin eta denboran iraun dezan, beharrezkoa da baldintza materialak eta sinbolikoak sortzea.

162. artikulua

Zirriborroaren 162. artikulua Gobernu Kontseiluaren osaera zehazten du, eta kideak sektoreka banatzen ditu. Ikasleei dagokienez, testuak hobekuntza argia dakar. Organoan guztira zortzi ordezkari izango direla jasotzen da, egungo osaeran baino hiru gehiago, eta, gainera, berariaz ezartzen da zortzi horien artean Ikasle Kontseiluko Lehendakaria egongo dela.

Proposatutako idazketaren arabera, Gobernu Kontseilua 45 pertsona hautetsik eta berezko kideek osatuko dute. Ikasleei dagokienez, Klaustroak bere kideen artetik hautatutako zortzi pertsonak izango dira ordezkari, eta horien artean egongo da Ikasle Kontseiluko burua. Gainera, kideak aukeratzekoan, maila eta modalitate ezberdinetako ikasleen ordezkariak bermatzeko saiakera egingo dela ere jasotzen da.

Organoaren banaketa osoa bistaratzeko, sektoreen arabera banaketa eta Gobernu Kontseilu osoan duten portzentajezko pisua jasotzen dira jarraian.

Sektorea	Kide kop.	Ehunekoa
Miembros natos (Errektorea, Idazkari Nagusia eta Gerentea)	3	-
a) Errektoreak izendatutako kideak	13	%28,89
b) Irakasle-ikertzaile iraunkorrak	12	%26,67
c) PDIrakasle-ikertzaile ez-iraunkorrak	3	%6,67
d) Ikertzaile ez-iraunkorrak	1	%2,22
e) Irakasle elkartuak	1	%2,22
f) TEKAZEL	6	%13,33
g) Ikasleak	8	%17,78
h) Gizarte Kontseilua (kanpokoa)	1	%2,22

Gure ustez, aurreikuspen hori positiboa da, ikasleen presentzia sendotzen duelako unibertsitatearen egunerokoan eragin zuzena duten erabaki asko hartzen diren organoan. Bereziki, irakaskuntzari, plangintzari eta unibertsitatearen lan-ildo nagusiei lotutako irizpide orokorrak zehazten direnean.

Azkenik, azpimarratu nahi dugu Ikasle Kontseiluko Lehendakaria zortzi ordezkarien artean berariaz sartzeak lotura zuzena bermatzen duela ikasleen ordezkaritza-organo gorenaren eta unibertsitateko gobernu-organo gorenaren artean. Horrek jarraitutasuna eta koherentzia ematen ditu, eta erabakiak hartzeko orduan elkarriketa argiagoa errazten du. Gainera, aurreikuspen horri esker, ikasleen presentzia Gobernu Kontseiluan sendotu egiten da, klaustroaren osaeran egon daitezkeen aldaketek baldintzatu gabe. Horrela, ikasleen benetako pisuarekin bat datorren ordezkaritza-eredu baterantz egiten da.

166. Artikuluari buruzko gogoeta

Zirriborroaren 166.3 artikulua ikasleen botoari %29ko haztapena ematen dio errektorea hautatzeko prozesuan. Gure ustez, aurreikuspen hori balioan jarri behar da, unibertsitate-komunitateko kolektibo handienaren garrantzia aitortzen duelako eta ikasleen parte-hartzea formal hutsera mugatzea saihesten duelako. Boto haztatua duen hauteskunde batean, kontua ez da bakarrik parte hartzea, baizik eta parte-hartze horrek emaitzan benetako eragina izatea. %29ko haztapena norabide horretan doa.

Ikasleen parte-hartzea funtsezkoa da unibertsitate publikoa, demokratikoa eta interes orokorrera bideratua eraikitzeko. Errektoretzak lehentasunak zehazten ditu, lan-ildoak markatzen ditu eta gero eguneroko unibertsitate-bizitzan islatzen diren erabakiak hartzen ditu. Horregatik, ikasleek erabakietan eragin errealik ez badute, sistemak legitimitatea galtzen du eta unibertsitate-komunitatearen errealitatetik urruntzen da.

Ehuneko horren garrantzia are handiagoa da USLOk ezartzen duen esparrua kontuan hartuta. Sei urteko agintaldia finkatzen du, eta horrek ikasleen ikuspegitik arazo demokratiko argia sortzen du. Gradu gehienek lau urte irauten dute, eta, ondorioz, promozio oso batzuek ez dute aukerarik izaten unibertsitatean dauden bitartean errektore-hautaketan parte hartzeko. Testuinguru horretan, %29 mantentzea gutxieneko bermea da ikasleen parte-hartzea eraginkorra izan dadin eta EHUn duten presentziarekin bat etor dadin.

178. artikulua. bigarren atalaren bigarren paragrafoa aldatzea

Ikasle Kontseiluetako Lehendakariak dagokien eremuetan ikasleen ordezkariaren kargu bakarreko organo gorenak direnez, uste dugu koherentea dela unibertsitateko gobernu-organismoetan ordezkari egoteaz gain ikastegietako Batzarretan ere presentzia izatea. Are gehiago, gaur egun irakaskuntza-zentroko Ikasle Kontseiluko Lehendakariak bete dezakeelako EHUko Unibertsitate Klaustroan zentro horretako ikasleen ordezkari den pertsona batek, edo zentroko taldeetako ordezkariak beren artean hautatutako ordezkari batek.

178. artikulua. Izaera, osaera eta funtzionamendua.

(...) 2.

(...) Batzarreko kide gehienak irakasle-ikertzaile iraunkorrak izan beharko dira, eta kideen ehuneko 29, gutxienez, ikasleak, haien artetik beti ikastegiko Ikasle Kontseiluko Lehendakaria bertan delarik. Halaber, Klaustroko gainerako hauteskunde taldeak bertan ordezkari egotea bermatu beharko da. (...)

VI. Tituluaren V. kapituluaren 1.bis atal bat eta 179 bis artikulua bat gehitzea.

Atal eta artikulua hau gehitzeko, 107., 108., 146. eta 178.2 artikulua bigarren paragrafoa aldatzeko proposamenaren azaldu dugun arrazoibide bera erabiltzen

dugu. Sekzioko Batzarraren eginkizunak zehaztean, kontuan hartu dugu gaur egun eginkizun horiek EHUko Zentroen Araudi Markoaren Lehen Xedapen Gehigarrian jasota daudela, osagarri moduan.

1ª bis atala: Ikastegietako Ataletako Batzarrak.

179 bis artikulua. Izaera, osaera eta funtzionamendua.

1. Ikastegiko Atal bakoitzak bere Ataleko Batzarra izango du Atalaren kide anitzeko gobernu, ordezkaritza, zuzendaritza eta kudeaketa organo gisa, zeinaren Lehendakari Ataleko Koordinatzailea izango den eta Idazkari Ataleko Idazkaria.

2. Ataleko Batzarraren osaera Ikastegi eta Egituren Arautegi Orokorrean zehaztuko da, Estatutu hauen muga barruan eta Estatutu hauen 178.2 artikuluan Ikastegietako Batzarrentzat zehaztutako proportzioak mantendurik. Xedapen horretan Ikastegiko Ikasle Kontseiluko Lehendakaria aipatzen denean, Ataleko Ikasle Kontseiluaren Lehendakaria aipatzen dela ulertuko da.

3. Ataleko Batzarrak hurrengo eskumenak izango ditu:

a) Dekanoak Ataleko Koordinatzailea izendatzeko aurkeztutako proposamenaren berri ematea.

b) Atalaren urteko aurrekontua proposatzea eta kudeatzea.

c) Koordinatzaileari laguntza eta aholkularitza ematea, bere eskumeneko gaietan.

d) Atalaren erabilera orokorreko edo partikularreko lokalak erabiltzeko arauen erregimenaren berri ematea, Ataleko Koordinatzaileak hala proposatuta.

e) Ataleko urteko txostenean, irakasleak kontratatzeko beharren berri ematea.

f) Ikastegiko batzarrari ataleko ikasketen eskaintza adierazteko proposatzea.

g) Taldeak kudeatzea. Kudeaketa hori modu koordinatuan egingo da, eta kontuan hartuko dira unibertsitateak eta ikastegiak ezarritako irizpide orokorrak.

h) Hautazko kredituak onartzea.

i) Ikastegiko batzarrari ikasturte bakoitzean ataleko numerus claususak finkatzeko proposatzea.

j) Ikastegiko batzarrak eskuordetzan emandako gainerako guztiak.

4. Ataleko Batzarrak bere barruan Batzorde Iraunkor bat izendatzea erabaki dezake, eta batzarrak berak zehaztuko du zer osaera, funtzionamendu erregimen eta eskumen izango dituen.

5. Bere funtzionamenduaren araubidea zein deialdi eta batzarren maiztasuna Ikastegi eta Estrukturen Araudi Orokorrean ezarriko dira.

VI. tituluaren V. ›kapituluaren hirugarren atalaren izenburua eta 183. artikulua aldatzea.

107, 108, 146, 178.2.II eta 179 *bis* artikuluentzako aurkeztutako argudioen ildo beretik, beren kargu, funtzio eta arduren garrantzia kontuan izanda, uste dugu oso garrantzitsua dela Ataleko Koordinatzaileak EHuko Estatutuetan agertzea eta

aintzat hartzea, gainerako dekanorde eta zuzendariordeekin batera. Gainera, txosten honen gaztelerazko bertsioan erredakzio sinplifikatu bat proposatzen dugu, ahalik eta gehien genero-bikoizketa saihesteko, baina EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak gazteleraren erabilera inklusiborako emandako gomendioak jarraituz.

Gainera, bigarren atala ezabatzea onena dela deritzogu, oximoron bat zekarrelako, dekanorde, zuzendariorde eta koordinatzaileek dekanorde, zuzendariorde eta koordinatzaileak izendatzen zituztela esaten baitzen bertan.

3. atala: Dekanorde, zuzendariorde eta Ikastegietako Egoitza edo Ataletako Koordinatzaileak

183. artikulua. Dekanorde, zuzendariorde eta Ikastegietako Egoitza edo Ataletako Koordinatzaileak.

1. Dekanorde, zuzendariorde eta Ikastegietako Egoitza edo Ataletako Koordinatzailek Dekano edo Zuzendariak eskuordetzen dizkien eginkizunak beteko dituzte, eta beren izendapenean zehazten diren arloen zuzendaritza hartuko dute.

3. Kargua uzteko arrazoi izango dira honako hauek: dimisioa, heriotza, ezgaitzea edo desgaikuntza, EHUko kide izateari uztea eta errektoreak hala ebaztea, dekanore edo zuzendariak proposatuta.


4. Errektoreak irakaslanetik salbuetsi ahal izango ditu Dekanorde, Zuzendariorde eta Koordinatzaileak.

Agintaldia amaituta, eta karguan hiru urte edo gehiago eman badituzte, eskubidea izango dute beste bederatzi hilabetez murrizketa berarekin jarraitzeko, irakaskuntzan eta ikerketan eguneratze aldera



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES



A close-up photograph of a hand holding a yellow pencil, poised to write on a sheet of lined paper. The background is softly blurred, showing more of the paper and the hand. The image is framed by green geometric shapes in the corners.

8.- VIII. TITULUA

Estatutuak onartu eta aldatzea

VIII. Tituluan (Estatutuak onartu eta aldatzea) zirriborroak Unibertsitatearen oinarrizko araua onartu eta aldatzeko jarraitu beharreko prozedura arautzen du, prozesu hori nork hasi dezakeen eta aldaketa dagozkien organoetan nola tramitatzen den ezarriz.

Titulu honetan, gure proposamena 211. artikulua aldatzeko ingurukoa da. Izatez, estatutu-aldaketa prozedura guztietan EHuko Ikasle Kontseiluari nahitaezko txosten ez-lotesle bat eskatzeko beharra proposatzen dugu. Hala, ikasleriaren iritzia bere eskubideei, partaidetza eta unibertsitatearen antolakuntzari lotuta dagoen izapide honetan formalki kontuan hartzea bermatu nahiko genuke.

211. artikuluari bosgarren atal bat gehitzea

211. artikulua amaieran atal berri bat gehitzea proposatzen dugu, zeinaren bidez EHuko Estatutuen etorkizuneko edozein aldaketa emango balitz EHuko Ikasle Kontseiluari -ikasleriaren kide anitzeko ordezkari organo gorena, zeinaren independentzia Estatutuetan bermatzen den- aldaketaren inguruko nahitaezko txosten ez-lotesle bat igorri zezan eskatzearen beharra xedatzen den. Ikasleriak Unibertsitateko instantzia desberdinetan parte hartzea garrantzitsua dela deritzogu, eta EHU arautzen duen testuaz ari bagara, are funtsezkoagoa da bere izapidetze-prozesuan ikasleriaren aburua kontuan izatea.

211. artikulua.- Prozedura abiarazteko ekimena.

1. Honakoek egin dezakete proposamena EHUren Estatutuak onartzeko edo aldatzeko, hala dagokionean.

a) Errektoreak.

b) Gobernu Kontseiluak.

c) Klaustrokideen heren batek.

2. Proposamena errektoreak egiten duenean, aukera hauek izango ditu:

a) Klaustroko Mahaira zuzenean bidaltzea proposatzen duen testua, arrazoiak azalduta, tramita dezan.

b) Klaustroko Estatutuen Batzordera jo eta adieraztea zein puntu proposatzen duen aldatzea, batzordeak, egokitzen hartuz gero, testua idatz dezan. Errektoreak onatzen jotzen badu testu berria, Klaustroko Mahaiari bidaliko dio, tramita dezan.

3. Proposamena Gobernu Kontseiluak egiten duenean, testu bat proposatu beharko du, arrazoiak azalduta. Testua gehiengo osoz onartua izan beharko da Gobernu Kontseiluan. Gero errektoreak Klaustroko Mahaira bidaliko du testua, tramita dezan.

4. Proposamena klaustrokideen heren batek egiten duenean, testu bat proposatu beharko dute, arrazoiak azalduta. Gero errektoreak Klaustroko Mahaiari bidaliko dio testua, tramita dezan.

5. Betiere, Errektoreak EHUko Ikasle Kontseiluari helarazi beharko dio proposamena, zeinak, 10 laneguneko epean, hari buruzko nahitaezko txosten ez-lotesle bat igorriko duen, zeina Klaustroko Mahaiak, Klaustroko Estatutu Batzordeak, Gobernu Kontseiluak edo Unibertsitate Klaustroak kontuan izan beharko duen, jarraitutako aldaketa-prozeduraren arabera.



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES



A close-up photograph of a person's hand holding a blue pen, positioned over a calendar grid. The hand is wearing a white ribbed sock. The calendar grid shows dates 16, 17, 18, 23, 24, 25, and 31. The background is blurred, showing a wooden surface and a grey object. The image is framed by purple geometric shapes in the corners.

9.- XEDAPENAK

Gehigarriak eta iragankorrak

Xedapen Gehigarri, Iragankor eta Indargabetzaileen blokean, zirriborroak egun indarrean dauden Estatutuek ezarritako esparrutik testu berrira pasatzean aplikatu beharreko araubidea definitzen du, bereziki organoek testuinguru berrira pasatzeko egin beharreko moldaketa. Aldaketa praktikan nola gauzatuko den eta organo berriak eratu eta araudi berria garatu artean aplikatu beharreko arauak ezartzen dituen atala da.

Gure aportazioak hiru taldetan sailka ditzakegu. Lehenik, Bigarren Xedapen Iragankorraren berridazketa proposatzen dugu, Klaustroa, Gobernu Kontseilua eta gainontzeko kide anitzeko organoak Estatutu berriak indarrean sartu eta berehala deitzea ziurtatzeko eta haiek USLOk ezarritako epeak betez egitea (edo saiatzea). Bigarrekin, Hirugarren Xedapen Iragankor bat gehitzea proposatzen da, Gobernu Kontseiluak aurreikusi gabeko behin-behineko egoerei estaldura juridikoa emanaz eta EHuko Ikasle Kontseiluaren iritzia entzutea bermatuz. Azkenik, Xedapen Indargabetzaile bat gehitzea proposatzen da, Estatutuek diotenaren aurkako EHuko barne araudia indar gabe uzteko, Estatutuetako Xedapen Gehigarri, Iragankor edota Indargabetzaileetan bertan kontrakorik esaten baldin ez bada.

Bigarren Xedapen Iragankorra aldatzea

Zabaldutako zirriborroan horrela dago Bigarren Xedapen Iragankorra idatzita:

Bigarren Xedapen Iragankorra. Klaustroaren, Gobernu Kontseiluaren eta kide anitzeko beste gobernu organoen egungo osaera.

Klaustroak eta Gobernu Kontseiluak orain arte bezala osatuta jarraituko dute, bai eta eta campusen, ikastegien, sailen eta ikerketa institutuen gobernurako kide anitzeko organoek ere, harik eta kideak aldatzeko sasoia heltzen zaien arte. Orduan estatutu hauetan zehaztutako moduan eratuko dira, estatutuok indarrean sartu eta bi urteko epean gehienez ere.

Hala ere, formulazio horrek 2/2023 Lege Organikoaren, martxoaren 22koa, Unibertsitate Sistemarena, Lehen Xedapen Iragankorraren lehen paragrafoan xedatutakoarekin (1/2024 Legearen, ekainaren 7koa, zeinaren arabera goi-ikasketa artistikoak arautzen diren eta ikasketa artistiko profesionalen antolakuntza eta bateragarritasunak ezartzen diren, Laugarren Amaierako Xedapenaren lehen paragrafoak aldatu bezala) izan zezakeen bateragarritasuna zalantza ikusten dugu.

USLOren Lehenengo xedapen iragankorra. Estatutuen onarpena eta organoen eta kide bakarreko karguen eraketa.

Unibertsitate publikoek hiru urteko epea izango dute, lege organiko honen indarraldia hasten denetik, lege organiko honen xedapenek ezarritakoa betez Estatutu berriak onartzeko eta Klaustro eta Gobernu Kontseilu berriak eratzeko.

Bertan Estatuko unibertsitate publikoei 2026ko apirilaren 12ra arte ematen zaie euren Estatutuak, Unibertsitateko Klaustroak eta Gobernu Kontseiluak berritzeko, USLOk xedatutakoari doituz.

Orain arteko erredakzioarekin, *de facto* aurreko Estatutuen indarraldia ia bi urte gehiagoz luzatuko litzateke, Klaustro eta Gobernu Kontseiluaren osaerari dagokionez. Aurreikusten da Estatutuon indarraldia 2026ko uda edo udazkenean hasiko dela, jada USLOren baldintzak bete gabe; baina, hala idatzita, 2028ko urri edo azaroan egon ahalko ginateke, legegile organikoak ezarritako luzapena amaitu eta ia hiru urte geroago, eta oraindik ULoren xedapenek diotenaren arabera eratutako organoak izanda.

Gainera, USLOren agintearen ondorioz onartutako beste unibertsitate publikoetako Estatutuak aztertu ondoren, ikusi dugu beren estatuto-organoen agintaldiaren egoera iragankor bat aurreikusten duten Estatutu guztiek beti USLOren 1XGko lehen atalean ezarritako muga legala errespetatuz egiten zutela.

Horregatik, ondorengo erredakzio berria proposatzen dugu:

Bigarren Xedapen Iragankorra. Unibertsitateko Klaustroa, Gobernu Kontseilua eta bestelako kide anitzeko gobernu-organok.

1. Estatutu hauen indarraldia hasterakoan Unibertsitateko Klaustroako eta Campus, Ikastegi, Sail eta Ikerketa Institutuetako kide anitzeko gobernu-organotarako hauteskundeak deituko dira, Estatutu hauetan aurreikusitako baldintza berriak betez eratuko direnak.

2. Gobernu Kontseiluko kide hautatuak Unibertsitateko Klaustro berriaren eraketa saioan hautatuko dira. Errektoreak berak izendatu beharreko kontseilariak dagokienez, gainerako Gobernu kontseilarien hautaketaren aldi berean izendatuko ditu.

Hirugarren Xedapen Iragankor bat gehitzea

USLOren jarraibideen arabera onartutako Estatuko beste unibertsitate publiko batzuen Estatutuak aztertu ondoren, interesgarria iruditu zaigu, adibidez, Oviedoko Unibertsitatearen Estatutuetan (4. xedapen iragankorra) dagoenaren antzeko xedapen iragankor bat sartzea. Xedapen horren bidez, Gobernu Kontseiluari ahalmena ematen zaio Estatutuak indarrean sartu eta erabat garatu bitartean sortzen diren gaien inguruko araudia onartzeko. Horrela, segurtasun juridikoa bermatuko genuke EHUren jardunean, eta haren muga Estatutu berrien testu positiboan eta Klaustro estatutugilearen benetako borondatean aurkituko genuke. Era berean, gure ustez, garrantzi ia estatutarioa duten neurriok hartzeko, zeinen bidez Estatutuak behin betiko hedatu arteko araubide iragankor bat interpretatu eta sortzen den, ezinbestekotzat jotzen dugu EHUko Ikasle Kontseiluak nahitaezko txosten ez-lotesle bat egitea, ikasleriaren kide anitzeko ordezkaritza-organo gorena den aldetik.

Aurreko guztia azalduta, xedapen iragankor berri hau **gehitzea** proposatzen da, Estatuko beste unibertsitate batzuetako Estatutuetan hartutako konponbideak kontuan hartuta eta segurtasun juridikoaren printzipioaren mesedetan:

Hirugarren Xedapen Gehigarria. Aurreikusi gabeko behin-behineko egoerak.

1. Gobernu Kontseilua eskuduntzen da Estatutu hauetan aurreikusi ez diren behin-behineko egoeren inguruko arauak onartzeko, betiere Estatutu hauek betez eta hauen inguruko interpretazio hermeneutiko bat eginez.

2. Gobernu Kontseiluak EHuko Ikasle Kontseiluari nahitaezko txosten ez-lotesle bat eskatu beharko dio horren inguruan, 211. artikuluko bosgarren atalean xedatutako epearen barruan igorri beharko duena.

Xedapen Indargabetzaile bat gehitzea

EHuko Estatutuen zirriborro honi xedapen indargabetzaile bat gehitzea da gure aportazioen azkenengoa.

Argi dago Estatutu batzuk, zeinak Euskadiko Gobernu Kontseiluaren Dekretuz onartzen diren eranskin moduan, ezin dutela aurreko Estatutuak onartzen zituen beste Dekretu bat indargabetu, begi bistako arrazoiengatik. Beraz, 2011an onartutako eta geroago aldatutako Estatutuak indargabetzeko xedapen bat sartzea bidegabekoa dela deritzogu. Hala ere, erreminta hau Estatutu berrietan xedatzen denaren kontra doazen gure Unibertsitateko barne-araudiak esplizituki indargabetzeko egokia dela uste dugu.

Xedapen Indargabetzailea.

Estatutu hauetan jasotakoaren kontra doazen EHuko gobernu organoek adostutako xedapen guztiak indargabetzen dira, Estatutu hauetako Xedapen Gehigarri eta Iragankorretan bestelakorik esaten den kasuetan salbu.



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

Txosten honen helburua Estatutuaren azken testuak unibertsitate publiko baten misioa, haren campus anitzeko errealitatea eta unibertsitate-komunitatea osatzen duten kolektiboen parte-hartze eraginkorra, bereziki, ikasleena, modu koherenteagoan jasotzea da. Dokumentuan zehar aurkeztutako proposamenak hainbat ardatzen inguruan egituratzen dira: lehenik, unibertsitatearen dimentsio akademikoa, prestakuntzakoa eta ikerkuntzakoa kokatzea, haren proiektzio profesionala ukatu gabe; euskara Euskal herriaren berezko hizkuntza gisa txertatu eta sendotzea, indarrean dagoen estatutu-esparruarekin eta benetako koofizialtasun- eta eleaniztasun-ereduarekin bat etorritz; modalitate birtualen edo hibridoaren erabilerak sarbidea zabaltzea, irakaskuntzaren kalitatea kaltetu gabe; eta gobernantza- eta ordezkaritza-arauak eta -egiturak hobetzea, parte-hartze demokratikoago, egonkorrago eta proportzionalago baterantz aurrera egiteko, adibidez, estatutu-erreformetan ikasleriaren ordezkaritza-organoak barne hartuz..

Ikuspegi horretatik, EHUko Ikasle Kontseiluak ekarpen hauek izapidetzeaz arduratzen diren organoen eta unibertsitate-komunitate osoaren esku jartzen ditu, azken emaitza testu argiagoa, berme handiagokoa eta unibertsitate-bizitzaren benetako beharrekin lerrokatuagoa izan dadin.



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

BIBLIOGRAFIA

Constitución Española. *Boletín Oficial del Estado* argitaratua, 311 zkia., 1978ko abenduaren 29koa. Eskuragarri: [https://www.boe.es/eli/es/c/1978/12/27/\(1\)/con](https://www.boe.es/eli/es/c/1978/12/27/(1)/con) (Azken kontsulta: 2025.12.21, 14.25).

Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco. *Boletín Oficial del Estado* argitaratua, 306. zkia., 1979ko abenduaren 22koa. Eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es/lo/1979/12/18/3/con> (Azken kontsulta: 2025.12.23, 12.45).

Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades. *Boletín Oficial del Estado* argitaratua, 307. zkia., 2001eko abenduaren 24koa. Eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es/lo/2001/12/21/6> (Azken kontsulta: 2025.12.22, 14.24).

Ley Orgánica 3/2018, de 5 diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales. *Boletín Oficial del Estado* argitaratua, 294. zkia., 2018ko abenduak 6koa. Eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es/lo/2018/12/05/3/con> (Azken kontsulta: 2025.12.24, 11.40).



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

Ley 3/2022, de 24 de febrero, de convivencia universitaria. *Boletín Oficial del Estado* argitaratua, 48. zkia., 2022ko otsailaren 25ekoa. Eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es/l/2022/02/24/3> (Azken kontsulta: 2025.12.23, 08.14).

3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoarena. *Boletín Oficial del País Vasco / Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* argitaratua, 97. zkia., 2022ko maiatzaren 20koa. Eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2022002159> (Azken kontsulta: 2025.12.21, 14.23).

Ley Orgánica 2/2023, de 22 de marzo, del Sistema Universitario. *Boletín Oficial del Estado* argitaratua, 70. zkia., 2023ko martxoaren 23koa. Eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es/lo/2023/03/22/2/con> (Azken kontsulta: 2025.12.22, 14.02).

Ley 1/2024, de 7 de junio, por la que se regulan las enseñanzas artísticas superiores y se establece la organización y equivalencias de las enseñanzas artísticas profesionales. *Boletín Oficial del Estado* argitaratua, 139. zkia., 2024ko ekainaren 8koa. Eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es/l/2024/06/07/1/con> (Azken kontsulta: 2025.12.22, 14.09).

Decreto-ley 5/1968, de 6 de junio, sobre medidas urgentes de reestructuración universitaria. *Boletín Oficial del Estado* argitaratua, 137. zkia., 1968ko

ekainaren 7koa. Eskuragarri:
<https://boe.es/boe/dias/1968/06/07/pdfs/A08254-08255.pdf> (Azken
kontsulta: 2025.12.21, 16.10).

Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores. *Boletín Oficial del Estadon* argitaratua, 255. zkia., 2015eko urriaren 24koa. Eskuragarri:
<https://www.boe.es/eli/es/rdlg/2015/10/23/2/con>. (Azken kontsulta:
2025.12.24, 11.56).

Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público. *Boletín Oficial del Estadon* argitaratua, 261. zkia., 2015eko urriaren 31koa. Eskuragarri:
<https://www.boe.es/eli/es/rdlg/2015/10/30/5/con> (Azken kontsulta:
2025.12.24, 11.57).

Real Decreto 2541/1977, de 23 de septiembre, por el que se modifican los Distritos Universitarios de las Universidades de Bilbao y Valladolid. *Boletín Oficial del Estadon* argitaratua, 236. zkia., 1977ko urriaren 3koa. Eskuragarri:
<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1977-24166> (Azken
kontsulta: 2025.12.21, 16.07).

Orden de 25 de febrero de 1980 por la que la Universidad de Bilbao pasa a denominarse Universidad del País Vasco (Euskal Herriko Unibersitatea). *Boletín Oficial del Estadon* argitaratua, 54. zkia., 1980ko martxoaren 3koa.

Eskuragarri: [https://www.boe.es/eli/es/o/1980/02/25/\(3\)](https://www.boe.es/eli/es/o/1980/02/25/(3)) (Azken kontsulta: 2025.12.21, 16.31).

Martxoaren 18ko 70/1985 Dekretoa, Euskal Herriko Unibertsitatearen Araudia onartuz. *Boletín Oficial del País Vasco / Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* argitaratua, 62. zkia., 1985eko martxoaren 21ekoa. Eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/1985/03/8500655e.shtml> (Azken kontsulta: 2025.12.21, 16.22).

Decreto 322/2003, de 23 de diciembre, por el que se aprueban los Estatutos de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. *Boletín Oficial del Estado* argitaratua, 171.zkia., 2004ko uztailaren 16koa. Eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es-pv/d/2003/12/23/322> (Azken kontsulta: 2025.12.21, 16.17).

17/2011 Dekretua, otsailaren 15ekoa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuak onartzen dituenak. *Boletín Oficial de País Vasco / Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian* argitaratua, 38. zkia., 2011ko otsailaren 24koa. Eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/web01-s1ezaleh/eu/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?R01HPortal=r48&R01HPage=bopv2&R01HLang=eu&ed2011000965> (Azken kontsulta: 2025.12.21, 16.56).

Decret 122/2024, de 24 de setembre, del Consell, pel qual s'aproven els Estatuts de la Universitat Politècnica de València. *Diari Oficial de la Generalitat*

Valencianan argitaratua, 9945. zkia., 2024ko irailaren 26koa. Eskuragarri: <https://dogv.gva.es/va/eli/es-vc/d/2024/09/24/122/dof/vci/html> (Azken kontsulta: 2025.12.22, 18.06).

Decreto 77/2024, de 5 de diciembre, por el que se aprueban los Estatutos de la Universidad de Oviedo. *Boletín Oficial del Principado de Asturias* argitaratua, 249. zkia., 2024ko abenduaren 26koa. Eskuragarri: <https://miprincipado.asturias.es/bopa/disposiciones/repositorio/LEGISLACION50/66/3/001U006S6V0001.pdf> (Azken kontsulta: 2025.12.21, 12.34).

Acord GOV/62/2025, d'11 de març, pel qual s'aproven els Estatuts de la Universitat Autònoma de Barcelona. *Diari Oficial de la Generalitat de Catalunya* argitaratua, 9370. zkia., 2025eko martxoaren 13koa. Eskuragarri: <https://dogc.gencat.cat/ca/document-del-dogc/?documentId=1008844> (Azken kontsulta: 2025.12.22, 18.01).

Acord GOV/201/2025, de 29 de juliol, pel qual s'aproven els Estatuts de la Universitat de Lleida. *Diari Oficial de la Generalitat de Catalunya* argitaratua, 9467. zkia., 2025eko uztailaren 31koa. Eskuragarri: <https://dogc.gencat.cat/ca/document-del-dogc/index.html?documentId=1021175> (Azken kontsulta: 2025.12.22, 17.53).

Decreto 94/2025, do 6 de outubro, polo que se aproban os estatutos da Universidade da Coruña. *Diario Oficial de Galicia* argitaratua, 207. zkia.,

2025eko urriaren 27koa. Eskuragarri:
https://www.xunta.gal/dog/Publicados/2025/20251027/AnuncioG0761-131025-0003_gl.html (Azken kontsulta: 2025.12.22, 18.03).

Ebazpena, 2022ko urriaren 3koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena, Ikastegien Esparru Arautegiaren testu bategina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzen duena. *Boletín Oficial del País Vasco / Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 214. zkia., 2022ko azaroaren 9koa. Eskuragarri:
<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2022/11/2204809e.shtml> (Azken kontsulta: 2025.12.21, 17.19).

American Psychological Association (APA). (2025, 25 de marzo). *Discapacidad (Lenguaje libre de sesgos – APA)*. Eskuragarri: <https://apa.org.es/apa-pautas-de-estilo-y-gramatica/lenguaje-sin-prejuicios/discapacidad/>

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU). (2024). *II Plan de Participación del Estudiantado de la UPV/EHU*. Eskuragarri: <https://www.ehu.eus/es/web/ikasi/ii-plan-de-participación-del-estudiantado-de-la-upv/ehu>.

Eusko Jaurlaritza (2022). *V Plan de Justicia Restaurativa 2020-2024*. Consejería de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz. Eskuragarri:
https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/xiileg_planes_departamentales/es_def/V-PLAN-JUSTICIA-JUVENIL-2020-2024.pdf (Azken kontsulta: 2025.12.23, 08.38).

Eusko Jaurlaritza. (s.f.). Necesidades específicas de apoyo educativo – Educación inclusiva y atención a la diversidad. Eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/necesidades-especificas-apoyo-educativo/web01-a3hinklu/es/>

Fernández Casete, J., Martínez Odriozola, L., Fernández González, M. Á., Momoitio San Martín, A. (2018). *Uso inclusivo del castellano*. Dirección para la Igualdad, UPV/EHU, Bilbao. Eskuragarri: <https://www.ehu.eus/documents/2007376/12795677/Uso-inclusivo-del-castellano.pdf/7dce2de6-4ad3-7353-dd5c-68312586a3cc?t=1568024250000> (Azken kontsulta: 2025.12.22, 10.08).

ONU GINEBRA. (s.f.). Directrices para un lenguaje inclusivo en el ámbito de la discapacidad. Eskuragarri: <https://www.ungeneva.org/es/about/accessibility/disability-inclusive-language>

United Nations Office on Drugs and Crime (s.f.). *Crime Prevention and Criminal Justice. Restorative Justice*. United Nations Office on Drugs and Crime-ren webgunean argitaratua. Eskuragarri: <https://www.unodc.org/e4j/en/crime-prevention-criminal-justice/module-8/index.html> (Azken kontsulta: 2025.12.23, 08.54).



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

